

## Durango kalera irten dira etxebakoentz duintasuna aldarrikatzeko



**Durango** | Banketxe batean hil zen lagunaren kasuak herritarrak astindu zituen joan zen astean. Durangarrak kalera irten dira gizarte bazterkeriari aurre egin eta etxebakoentz bizimodu duin baterako neurriak eskatzeko. • 12

## Abiadura neurtzeko radar bat ipiniko dute Trabakuan

**Mallabia** | Eusko Jaurlaritzak ibilgailuen abiadura neurtzeko du Trabakuan, radar baten bitartez. 2010etik 2018ra bitartean, Berriztik Trabaku osterainoko tartean 44 istripu gertatu dira. Errepide horretatik 7.700 ibilgailu pasatzen dira egunero. • 8

## Danbor hotsez ospatuko dituzte San Sebastian jaiak Bakixa auzoan



**Iurreta** | Bakixako Tanborrada Mundiala zapatu gauerdian egingo dute. Biharamunean, Tanborrada Txikia ere egingo due, aurten lehenengoz. Gaur abiatuko dituzte San Sebastian jaiak, Doniel Atxa jasota. • 8



**Operaren**

**goi**

**mailan**

Andeka Gorrotxategi tenore abadiñarra ibilbide oparoa lantzen dabil operaren munduan. Operarik ezagunenak mundu osoko antzokietan taularatzen dihardu. • 2-3

**JAIK!**  
BERRIZ 2020

Antonio Deuna **Jaiak**



**DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA**  
**CEPA DURANGO HHI**  
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253  
www.epadurango.hezkuntza.net

**MATRIKULA**  
2019-2020 IKASTURTEA  
urtarrilaren 14tik 31ra

**ORDUTEGIA**  
09:00 - 12:00 Astelehentik ostiralera  
18:00 - 20:00 Astelehentik ostegunera

**IRAKASKUNTZA ARAUTUA:**

- HASIERAKO IRAKASKUNTZAK-I
- HASIERAKO IRAKASKUNTZAK-II
- DBHko GRADUATUA Euskera eta gaztelarazko taldeak

**IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA:**

- Atzeritarrentzako gaztelania
- Informatika
- Ahozko elkarrekintzak ingelesez
- Ahozko elkarrekintzak frantsesez
- Nazionalidadea

**MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253**  
www.epadurango.hezkuntza.net



**ETORRI GU EZAGUTZERA**  
Bisita pertsonalizatuak

**LOURDESKO AMA IKASTETXEA**  
harrera@lourdeskoama.eus  
www.lourdeskoama.eus    
94 682 00 56



***“Gaztetan ez nituen  
ideiak oso argi.  
Gustatzen zaidana  
egin dut eta bide  
horrek honaino  
ekarri nau”***

Andeka Gorrotxategik operaren goi mailan dihardu. Euskal opera bultzatu guran, Gabonetan kontzertu bi eman ditu Euskal Herrian. Bere jarraitzaileek Andekazaleak elkartea sortu dute

**MUSIKA • JONE GUENETXEA**

**Adituek diotenez, Andeka Gorrotxategi (Abadiño, 1977) azken 50 urteotako tenorerik garrantzitsuenak da Euskal Herrian. Abadiñarrak Durangoko kontserbatorioko koruan ekin zion bideari. Orain, opera denboraldia duten nazioarteko antzokirik garrantzitsuenetan entzun daiteke bere ahotsa. Horien guztien artean, emanaldi batek zabalkunde handia izan du. Sidneyko Opera Houseko tellatutik Turandot opera abesten agertzen den bideoa milioika lagunek ikusi dute.**

**Zelan pasatu dituzu Gabonak Euskal Herrian?**

Laburra egin zait. Bilbon eta Getxon kontzertu bana eman dudanez, etxean denbora gutxi pasatu dut. Entseatzen eta elkarrizketak egiten lanpetuta ibili naiz. Hala ere, pozgarria izan da.

**'Alere!' lanagaz euskal operaren une gogoangarriak taularatu dituzu. Zein sentsazio utzi dizu?**

Sentsazio ona, eta proiektu horregaz jarraitzea itxaroten dut. Proiektu honetan, euskal operaren zatiekin kontzertua osatu dugu. Aurrera begira, ildo horretatik jarraitzea gustatuko litzaidake. Esate baterako, kontzertu honetan agertu diren operetatik bat hautatu eta kontzertua ematea. Ez dakit zein izango den Andekazaleak elkarrearen asmoa, baina euskal musika plazaratzeko zabaldu duten bide horretatik jarraitzea interesgarria litzateke. Euskal operako lanak oso gutxitan taularatzten dira, eta gero ahaztu egiten dira. Gure kultura guk geuk defendatu beharko dugu.

**"Euskal operako lanak oso gutxitan taularatzten dira, eta gero ahaztu egiten dira"**

**Badago opera entzuteko tradizioarik Euskal Herrian?**

Bai, zaletasuna egon badago. Eta Euskal Herrian abesteko ohitura handia egon da. Agian opera arloan ez hainbeste, baina bai kontzertuak eta antzezpenak egiteko. Hori alde batera utzi da, eta gauza berriak sortzeko aurretik egin diren gauzak ezin ditugu ahaztu.

**Durangoko kontserbatorioan hasi zenuen ikasketak. Momentu hartan, imajinatzen zenuen mundua zeharkatuko zenuela tenore lez?**

Gaztetan ez nituen ideiak oso argi. Gaztetatik gustatzen zaidana egin dut, eta honaino ekarri nau. Hogeta piku urte izan arte ez nekien neure burua non ikusten nuen. 18-19 urteagaz hasi nintzen kantatzen. Musika munduan 8 urteagaz solfoa

ikasten hasi nintzen eta 12 bat urteagaz utzi egin nuen. Geroago, koruan apuntatu nintzen. Badago jendea lehenago hasten dena kanta-

**"Amateur-profesional lez hasi nintzen lanean, gauza txikiak egiten. Euskal Herrian zarzuelak egiten nituen"**

tzen. Mutilen artean ahots aldaketa bat egoten da 15 urte buelta horretan. Prozesua ez da 17-18 urtera arte amaitzen.

**Zelakoak izan ziren lehenengo pausoak mundu profesionalean?**

Amateur-profesional lez hasi nintzen lanean, gauza txikiak egiten. Euskal Herrian zarzuelak egiten nituen. Ez nekien zer pasatuko zen. Ez nuen gehiegi pentsatu gura etorkizunean. Lan hobeak topatzen hasi nintzenean lasaitasun handia hartu nuen, konturatu nintzelako nire bizitza musikara bideratu nezakeela.

**Zelan eman zenuen antzoki handietarako jauzi hori?**

Amateur-profesional sasoiaren horretatik bizi nintzen. Gero, agente bat topatu nuen eta opera denboraldiak dituzten antzokietara joaten hasi nintzen.

**Ibilbide horretan, zein antzoki edo kontzertu izan dira esanguratsuenak?**

Ikuspuntu profesionaletik, kontzertu guztiak dira garrantzitsuak. Inoiz ez dakizu hurrengo kontratua nondik etorriko zaizun. Kontzertu guztietan egon daiteke zuzendariren bat bere operara eramateko interesatuta. Ikuspuntu pertsonalean, Veneziako teatroan nire emaztea ezagutu nuen eta hori oso berezia izan zen. Madame Butterfly antzeztzen genbiltzala elkar ezagutu genuen; bera dantzaria da. Bestalde, Sidneyko antzokia ere garrantzitsua da. Askotan lan egin dut han, eta asko maite naute.

**"Kontzertu guztietan egon daiteke zuzendariren bat bere operara eramateko interesatuta"**

**Familia izanda, bizimodu hau ez da erraza izango. Zelan konpontzen zarete?**

Garain bizi gara. Lehen, familia osoa mugitzen zen nigaz, baina orain umeak eskolan hasi dira eta etxean gelditzen dira. Noizbehinka etortzen dira. Gainera, nire emaz-



**"Lehen, familia osoa mugitzen zen nigaz, baina orain umeak eskolan hasi dira eta etxean gelditzen dira"**

tea dantzaria da eta bizitza profesional hori laburragoa da. Orain ikasten dabil, azterketak prestatzen. **Musikaren mundua oso exigentea da. Eta zu zeure buruagaz?** Perfekzioa bilatzen gabiltza beti, nahiz eta sekula ez topatu. **Adituek diote brontzeko ahotsa duzula. Zer esan gura du horrek?**

Gauza oso subjektiboa da hori. Metalikoa, indartsua dela esan gura du. Baina ahots batek sentsazio bat transmititu diezaioke bakoitzari. Kristalezko ahotsak, esaterako, zer esan gura du? Gardena dela... Pentsatzen ari den pertsonaren burura datozen irudiak izaten dira. Oso subjektiboa denez, ez diot garrantzi gehiegirik ematen. Sentimendu bati adjektiboak ipintzea da. Bakoitzak bere modura interpretatuko du. **Zein proiektu duzu orain esku artean?** Orain La Boheme prestatzen nabil, Montecarlon. Hile amaieran antzeztuko dugu, eta gero etxera joango naiz egun batzuetarako.

Handik Palma Mallorcakora joango naiz, hilabete inguru, Carmen abestera. Gero, egun batzuetarako etxera joango naiz, eta gero Australiara eta Alemaniara joango naiz.

**Zer gelditzen zaio egiteko Andekari?** Pozik nago orain nagoen moduan. Urte batzuk oraingo moduan lan egitea gura nuke. Hori bai, urte batzuk barru kontserbatorioren batean kantu irakaslea izatea gustatuko litzaidake.

**Zeure burua irakasle lez ikusten duzu?** Bai, eta, irakasle izateaz gainera, etxetik hurbil egon ahal izatea asko baloratzen dut.



**EH Bilduk Zaldibarko Udalaren aurrekontu parte-hartzaileen "kudeaketa lotsagarria" salatu du**

**ZALDIBAR** • A.M.

Ohar baten bitartez, Zaldibarko EH Bilduk "gogor" salatu gura izan du 2020ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan EAJk eta PSEk izan duten "utzikeria eta kudeaketa gaitasun falta". "Herritarren parte-hartzearekiko interes falta argia erakutsi dute EAJk eta PSEk. Gainera, seriotasun eta gardentasun falta egon da prozesu guztian zehar; dena era inprobisatuan egin dute", azaldu dute oharrean. Hain

**Abenduaren 16ko saioan sei herritarrek parte hartu zuten, EH Bilduren esanetan**

zuzen ere, prozesuan saio bakarra egin izana azpimarratu du alderdi subiranistak oharrean: "abenduaren 16an egindako saioan sei lagun bildu ziren, eta bertan hamalau proposamen egin ziren; gainera, aurrekontu parte-hartzaileetarako finkatutako 25.000 euroetatik, 9.725 euro baino ez dira bideratuko proposamenterako". Saioak bando bidez baino ez publizatu izana ere salatu du EH Bilduk ohar horretan.



## Iguria auzoko sarbideak behar den moduan argiztatu ditzan eskatu dio Elorrioko Udalak Aldundiari

Urtarrilaren 10ean batzarra egin zuten Elorrioko Udaleko kideek eta Imanol Pradales Bizkaiko Foru Aldundiko diputatuak



Iguriako auzotarrak eta Elorrioko Udala arduratuta daude auzoko sarrera-irteerekin.

**ELORRIO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2019an 20 auto istripu gertatu ziren Gerediaga eta Kanpazarreko gaina lotzen dituen errepidean, Elorrioko tartean. Gainera, Elorrioko saihebidetan iaz izandako istripuetan lagun bi hil ziren. Azkena, urriaren 25ean.

Urriaren 25eko istripu horren ondoren, errepide tarte horretan dagoen Iguria auzoko bizilagunek hainbat protesta eta eskari egin zituzten. Hala ere, Iguriako auzotarrak ez dira izan eskariak egin dituzten bakarrak. Elorrioko Udalak ere egin ditu bereak. Udalak egindako lehenengo eskaria Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura Sailagaz batzartzea izan zen. "Errepide hori Aldundiarena da eta, horregatik, batzartzeko eskaera

egin genien", azaldu du Idoia Buruaga alkateak.

Urtarrilaren 10ean egin zuten batzarra, Elorrioko Udaleko kideek eta Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurralde Garapen diputatuak.

**2019an 20 auto istripu gertatu ziren Gerediaga eta Kanpazarreko gaina lotzen dituen errepidean**

Alkateak jakitera eman duenez, Aldundiak N-636 errepidean egin dituzten hobekuntzak eta hartu dituzten neurriak azaldu zituen. Bide tarte horretako segurtasuna bermatzeko, Aldundiak pibo-

teak eta seinale berriak ipini ditu. "Aldundiaren ustez, egin dute-na nahikoa da, baina gure ustez ez. Udalaren iritzian, ezarritako neurri horiek lagungarriak dira, baina ez dira nahikoa", adierazi du alkateak.

Bestalde, zati horretako argiztapena hobetzeko eskaria egin duela jakitera eman du Idoia Buruagak. "Auzoko sarbideak behar den moduan argiztatzea eskatu diogu Aldundiari", esan dio ANBOTOrri Buruagak. Hala ere, argiztapena hobetzea ez da udalak egingo duen eskari bakarra, abiadura moteltzeko bestelako neurriak hartzeko ere eskatuko baitiote Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari. "Abiadura moteltzeko bestelako neurriak hartzeko eskatu genion Aldundia-

ri, baina ez zela euren eskumena esan ziguten. Beraz, orain Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari egin behar diogu gure eskaria; hau da, euri eskatu beharko diegu errepide horretako segurtasuna

**Abiadura moteltzeko bestelako neurriak hartzeko eskatuko dio udalak Eusko Jaurlaritzari**

hobetzeko hartu beharreko neurriak hartzea", esan du alkateak. Eskariak Iguriako auzotarrekin batzartu ondoren egingo dituztela jakitera eman du alkateak. Batzarra aste honetan egitekoak ziren.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2020ko urtarrilaren 17a  
18. urtea - 790. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## "Norabidea argi" duela osatu du Elorrioko Udalak lehenengo urte erdia

ELORRIO • IGOR GALARZA

Elorrioko Udalak gobernu taldearen lehenengo sei hilabeteen balorazio "positiboa" egin du. "Herritarren beharriaz erantzun" diela adierazi du Buruaga alkateak, eta hurrengo helburu batzuk ere aipatu ditu, artean Iguria auzoko arazoari aurre egitea. Udal taldean lau aurpegi berri izanagatik ere, eta "eraginkortasuna hobetu daitekeen arren", hausnarketa baikorra egin du alkateak. Taldea "emankorra" dela esan du, eta "gogotsu" daudela nabarmendu. Aurrekontu parte-hartzaileekin gustura geratu dira, "herrigunean oinarritutakoa" dela azpimarratuz.

Erronka ugari dituztela azaldu dute. Alde batetik, Iguria auzoko gatazka konpondu gura dute. Oinezkoentzat pasabidea egin eta errepidetik igarotzen diren autoen abiadura moteldu gura du udalak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailagaz berba egingo dutela jakinarazi du Buruagak.

Abenduan onartu zituzten aurrekontuak, behin-behinean, baina Elkarrekin-Podemos Herritarren Eskubidea taldearen ezezko botoak "harritu" egin zituela esan dute. Hala, oraindino ez dute berba egin oposizioko taldeagaz: "Ez dugu astirik izan talde biak jesartzeko".

# Naturan ikusi eta ikasitakoa erabilia konpondu dute Otxandion Errekatziki inguruko bidea

Hormigoirik erabili beharrik barik, bidearen behealdean errekarriak erabiliz horma bat egin dute, besteak beste



Lanak egin dituzten tokia: errekarren ondoan errekarri egindako horma, eta bere gainaldean lurra, sahats adarrekin.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Naturari begiratuta ikasgai erabilgarriak atera daitezke, eguneroko bizimodua hobetzeko aplikatu daitezkeenak eta ingurumen arloko inpaktua gutxitzen laguntzen dutenak. Besteak beste, horixe da bioingenieriaren lana, eta zientziako adar horretako teknikak erabili-

ta konpondu du URA agentziak Otxandioko bide zati bat, Errekatziki zonaldean. "Lanak amaitu eta gero, gunehori jatorrizko inguru naturalaren ahalik eta antzekoena izan dadin ahalegindu gara", azaldu dute URA agentziako Jabari Publiko Lehenaratzeko eta Zaintzeko Saileko iturriek.

Bide ondotik doan ibaiak zorua 'jan' dio bideari urteetan zehar, eta bidea jausteko arriskua zegoen. Horregatik zegoen konpontzeko beharriaz, eta baliabide naturalak erabilia eman diote irtenbidea. Beheko aldean harresi bat eraiki dute alandrezko sare batean batutako errekarriekin, hormigoirik

erabili barik. Harriak errekarriak direnez, ez dute ertzik, higituta daude, mota horretako inguru naturaletan aurkitzen diren moduan. "Hormigoia, harrietako harriak... horiek ez dira batere elementu naturalak", arrazoitu dute.

**Sahatsen sustriak, euskarri**

Harresiaren goiko aldetik bideraino doan tartea lurrez estali dute. Baina lurra urak eraman dezake egun euritsuetan. Horregatik, lur gainean %100ean biodegradagarria den estalkia ipini dute, hamar bat urteren ondoren desagertu egingo dena. Horregaz batera, lur zati horretan, inguruan batutako sahatsetatik hartutako adarrak sartu dituzte. Urteek aurrera egin ahala, adar horiek sustriak botako dituzte eta sahats landare berriak haziko dira. Modu horretara, geruza biodegradagarria desegiten denean, sustri errotuak bihurtuko dira inguruko itsasgarri naturala. "Sustriak dauden tokian urak ez du lurrik eramaten", diote URA agentziakoek.

Oraingoa ez da bioingeniaritza erabiliz Errekatziki inguruko bide zati bat konpondu duten lehenengo aldia. Iaz, ur araztegiaren alderantz dagoen beste gunehori bat eraberritu zuten, beste mota bateko teknika batzuk erabilia.

## Udal bulegoak berriro dituzte Atxondon, herri arreta hobetze aldera

Hiru asteko epean, lehenengo solairua berrantolatu dute eta sarreran beste erakusmahai bat ipini dute "bizilagunak hobeto artatzeko asmoz", udal gobernuak adierazi duenez


ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

33.000 euroko inbertsioa eginda, Atxondoko Udalak udal bulegoak berriro ditu. Ohar bidez jakitera eman dutenez, "herritarrenganako arreta hobetzea" dute helburu bulego berriek.

Hiru astean burutu dituzte lanak. Epe horretan, udaletxeko lehenengo solairua berrantolatu dute. Bertan, alkatearen, idazkariaren eta arkitektoaren bulegoak daude orain, eta bizilagunak egoteko toki bat ere egokitu dute. Xabier Azkarate alkateak jakitera eman duenez, lanen helburua arreta hobetzea izan da. "Espazioak hobeto aprobetxatzeaz gainera, arreta zuzenagoa eta eraginkorragoa izatea ere gura izan dugu", esan du.



Atxondoko udaletxeko lehenengo solairuan dauden udal bulegoak berrantolatu dituzte.



# Izaro musikari mallabitarrak eman dio hasiera Gipuzkoako txotx denboraldi berriari, lehenengo kupela zabaldua

Astigarragako Alorrenea sagardotegian egin zuten irekiera ekitaldia, eguaztenean; 12 milioi litro sagardo ekoiztu dira

**MALLABIA • ARITZ MALDONADO**

"Gure sagardo berria" oihu egin da, Izaro musikari mallabitarrak 2020ko Gipuzkoako txotx denboraldi berriko lehenengo kupela zabaldu zuen eguaztenean, Astigarragan (Gipuzkoa). "Plazer handia izan da lehenengo kupel hori zabaltzea, izan ere, lan askoren emaitza da", azaldu zuen abeslariak. Sagardoaren kultura ingu-

moduan, soka dantzan parte hartu zuen abeslari mallabitarrak.

Izarok urtarrilaren 31n argitaratu du *Limones en invierno* bere hirugarren lana. Hain zuzen ere, sagardogileek mallabitarraren ekina azpimarratu gura izan dute txotx denboraldi irekierara gonbidatuta. "Artista hain gazte batek sekula ere ez du lortu hain denbora gutxian Euskal Herriko tenplu musikala guztietan (Kursaal, Arriaga antzokia, Victoria Eugenia...) 'sarrerak agortu dira' kartela eskegitzea", azpimarratu zuten sagardogileek. Lan berriaren aurkezpen biran Mexiko eta Txile bisitatuko ditu. Horrez gainera, Donostian, Baionan, Iruñean eta Bilbon iragarri ditu kontzertuak, martxorako; maiatzean Madrilen eta Bartzelonan eskainiko ditu kontzertuak.

**Denboraldi hasierako ekitaldian parte hartzea "plazerra" dela adierazi du musikari mallabitarrak**

ruan erroturik duela adierazi zuen jarraian. Musikariak hainbat urte daramatza Donostian bizitzen, eta hartu-eman estua garatu du Gipuzkoagaz, bere lan guztietan nabaritu daitekeen moduan. Kupela zabaldu aurretik, sagarrondo bat landatu zuen Sagardoetxeako sagastian, eta, jarraian, ohikoa den

**"Zuku orekatua"**

Sagardogileen esanetan, 2020an dastatuko den sagardo "orekatua eta fruta freskoaren usaina duena" izango da.



Izaro, sagardotegien irekiera ekitaldian.

## Trabakuko pasabidea ekainean zabaltzea aurreikusten du Mallabiko Udalak

**MALLABIA • J.D.**

Trabakuan BI-633 errepidea zeharkatu ahal izateko, bide gainetik joango den pasabide bat egiteko lanak hasi zituzten abenduan. Dena aurreikusitako moduan badoa, errepideko alde biak lotuko dituen azpiegitura berria ekainean zehar egongo dela erabilgarri azaldu du Igor Agirre alkateak.

Udalak Egoin enpresari esleitu zizkion lanak, 545.000 eurotan.

Lehenengo, pasabidea kokatuko den zoru egokituko dute. Hori prest dagoenean, gau batez errepidea itxi, eta egitura bakarreko pasabidea dagokion tokian ipiniko dute.

Osorik egurrez egindakoa izango dela da pasabidearen ezaugarrietako bat, eta egitura irekia izango da, puntu beltzik sortu ez dadin.

Goita, Gereia eta Longako auzotarrek horrela erabaki zutelako

egin dute gainera pasabide berria. 2018ko uztailean auzo batzarrerara deitu zituzten hiru auzoetako herritarrak, eta hantxe hartu zuten erabakia. Orduan, udalak aukera bi ipini zituen mahai gainean: gainera pasabidea ala lur azpiko tunela. Bataren eta bestearen gaineko xehetasunak jaso ondoren, batzarrean batutako auzotarren gehiengoak gainera pasabidearen aldeko hautua egin zuen.



Pasabiderako lanak egiten hasi da Egoin enpresa.

## Abiadura neurtzeko radar bat ipiniko dute Trabakuan

Egunero 7.700 ibilgailu igarotzen dira errepide horretatik, Imanol Pradales Aldundiko diputatuak azaldu duenez

**MALLABIA • J.D.**

Eusko Jaurlaritzak ibilgailuen abiadura neurtzeko radar bat ipiniko du Trabakua gainean, Bizkaiko Aldundiak eskatuta. Halaxe jakinarazi du Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapena Saileko diputatua den Imanol Pradalesek, gai horren harira Ba-

zuen, eta %13k ez duela abiadura muga errespetatzen.

**44 istripu 2010etik 2018ra**

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak kudeatzen du trafikoa, eta euren webguneko datuen arabera, 2010etik 2018rako epealdian 44 istripu gertatu dira Trabakuan, Berrizen igoera hasten den puntutik Markina alderantza aldats behera amaitzen den puntura bitartean. Istripu horietan lau lagun hil (2016an bi eta 2013an eta 2010ean bana) eta 85 zauritu dira, eurretari-ko bost larri.

Igor Agirre Mallabiko alkateak begi onez ikusten du Trabakuan radarra ipintzeko neurria, eta gogoratu du bai bera eta bai Orland Isoird Berrizko alkatea behin baino gehiagotan batu izan direla Aldundiko ordezkariekin, Trabakuan abiadura gutxiagotzeko neurriak eskatzeko. "Berriztik Markinara istripu asko gertatzen dira eta beharrezkoa da neurriak hartzea arazoari aurre egiteko", azaldu du Agirre alkateak.

**Igor Agirre Mallabiko alkatearen esanetan, beharrezkoa zen neurriak hartzea istripuak gutxitzeko**

tzar Nagusietako batzorde batean Bizkaiko PPK egindako galderei erantzunez.

2016an Trabakua gainera errepidea hobetzeko lanak burutu zirela gogoratu zuen Pradalesek, eta gaur egun han gertatzen diren istripuak "gehiegizko abiaduragatik" izaten direla batez ere. Errepide horretatik egunero 7.700 ibilgailu pasatzen direla azaldu

# Bizkaiko kiroldegietan beste hamar greba egunetara deitu dute

Urtarrilaren 20tik 26ra eta otsailaren 4an, 5ean eta 6an greba egingo dute Abadiñoako, Berrizko, Zornotzako eta Elorrioko kiroldegietan

**DURANGALDEA** • A.B. / J.G.

Bizkaiko kiroldegietako langileak greba egitera deituta daude urtarrilaren 20tik 26ra eta otsailaren 4rako, 5erako eta 6rako. Negoziazio mahaian aurrerapausorik eman ez dela ikusita erabaki dute Bizkaiko kirol lokal eta zelaietako langileek berriro mobilizazioei ekitea. Lan hitzar-

**Negoziazio mahaian aurrerapausorik eman ez dela ikusita, berriro ekingo diete mobilizazioei**

mena egungo errealitatera egokitzea eskatzen dute langileek, eta, aurrerapausorik eman ezean, sindikatuek ez dute baztertzen data berriak iragartzea, ELAk jakinarazi duenez.

Urtarrilaren 9an, sindikatuek plataforma berri bat aurkeztu dute akordio batera heltzeko asmoz, ELAk zabaldu duenez. Hala ere, diotenez, "enpresak ez dio baliorik eman egindako ahaleginari".



Abadiñoako kiroldegiko erabiltzaileek iaz egindako kontzentrazioa.

**Abadiñoako erabiltzaileek 200 sinadura batu dituzte Emtesport enpresari konpentsazioa eskatzeko**

Bizkaiko Kiroldegietako lanuzteak eragina izango du Durangal-

dean. Abadiñoako, Berrizko, Zornotzako eta Elorrioko kirolguneetako beharginek deialdiagaz bat egin dute. Iaz ere grebak egin zituzten lau kiroldegi hauetan.

**200 sinadura Abadiñon** Abadiñoako kiroldegiko erabil-

tzaileek 200 sinadura batu dituzte kirol azpiegitura publikoa kudeatzen duen Emtesport enpresari konpentsazioa eskatzeko, iaz jaso ez zuten zerbitzua delata. Sinadura horiek Astolako bulegoan entregatu dituzte. "Kiroldegian dioskue grebaren era-

gina baloratzen ari direla eta ez digute dirurik itzuli. Udaletxean ere entregatu dituzte sinadurak. "Udalak dio Emtesport azpikontratutako enpresa bat denez kontsumitzaileen bulegoan ipini behar dugula kexa", azaldu du erabiltzaile batek. Kontsumi-

tzaile legez kexa ipini eta gero, enpresak arrazoia eman dio eta kiroldegian konpentsazioa eskatzeko esan dio. "Kiroldegiko leihatilara joan naiz konpentsazioa eskatzera, eta ezezkoa jaso dut. Ulertezina da", dio kexa ipini duen pertsonak.

## Manifestazioa egingo dute Durangotik lurretara, A-8ko ordainsaria kentzea eskatzeko

AP-8 Peajerik ez! plataformak manifestaziora deitu du urtarrilaren 25erako. Ezkurditik abiatuko dira, 18:00etan



Manifestazioaren helmuga lurretako ordainlekua izango da. LEHIOR ELORRIAGA

**DURANGALDEA** • AITZIBER BASAURI

Espainiar estatuan hainbat autobideek ordainpekoak izateari utzi diotela-eta, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba ezin direla atzean gelditu salatu gura du AP-8 Peajerik ez! plataformak. "Batez ere, AP-8 autobidearen kontsezioa orain 17 urte amaitu zelako, eta, beraz, bidesaririk bakoa izan behar lukeelako", plataformakoek diotenez. Hartara, "Durangaldeko, Ermuko eta Lea-Artibaiko egoera ekonomiko hobetzeko ezinbesteko neurri moduan", bidesaria kentzea eskatu dute, eta gura duten herritarrak manifestazioan parte hartzea deitu dituzte. "Bidesariak kentzeak bultzada ekonomiko garrantzitsua emango lioke Bizkaiko inguru honi, bidesariak oztopo dira-eta inguruaren garapenerako", esan dute. Bestalde, inguru honetako herritarrak "bigarren mailako bizkaitar lez tratatzeari" uztea ere eskatuko dute. "Zerga berdinarak ordaindu arren, mugikortasun azkar, seguru eta eraginkorrari dagokionez ez ditugu gainerako bizkaitarren eskubide berdinarak", gaineratu dute.

**BERTSO AFARIA**  
Urtarrilaren 24an, 20:30ean, Txintxirri Ikastolan (Elorrio)



Bertsolariak: **Alaia Martin eta Unai Iturriaga**  
Txartelak salgai: Ikastola eta Parran. Nagusiak: 18€ / 16 urtetik beherakoak: 10€

# Herritarrentzako zerbitzuak eta mugikortasunari lotutako neurriak daude Amankomunazgoko aurrekontu proposamenaren erdigunean

"Benetako erronkak" lehenesten ez direla iritzita, EH Bilduk aurka egingo du. Herriaren Eskubideak dio gizarte larrialdietarako laguntzak %10 gutxituko liritekeela

**DURANGALDEA** • J.D. / E.H.

Amankomunazgoko gobernu taldeak mahai gainean ipini du 2020ko aurrekontuen proposamena, eta, horren aurrean, oposizioko kideek euren jarrerak argitu dituzte. Edizio hau ixterako (eguen), atzoko osoko bilkura egin barik eta proposamena bozkatu barik egonda. Dena dela, EAJ eta Abadiñoako Independentiak alderdiek proposamena babestu badute ere, EH Bildu eta Herriaren Eskubideak ez dira proposamenagaz bat etorri.

Amankomunazgoak urte honetarako diseinatu duen aurrekontu proposamenaren, herritarrei zuzendutako zerbitzuak, tokiko garapena eta antolakuntzari lotutako asmoak nabarmentzen dira. Zenbateko osoa 6.689.325 eurokoa da, iaz baino %2,89 handiagoa, eta kopuru horren ia erdia, 3.857.118 euro, herritarrei zuzendutako zerbitzuetara bideratzea dago aurreikusita. Besteak beste, adinekoentzako arreta zerbitzua martxan ipintzea eta Galtzaretako eraikineko irisgarritasuna



Javier Crespo presidenteordeak eta Mireia Elkoroiribe presidenteak abenduan aurkeztu zuten aurrekontuen proposamena.

eta segurtasuna hobetzea daude helburuen artean.

Legegintzaldi honetako lanildoie dagokienez, Berrizko belodromoa estaltzeko asmoak ageri dira. "Bizkaian ez dago beste belodromorik eta pena da sarritan erabili ahal ez izatea ez dagoelako estalita. Bizkaiko txapelketak

behin baino gehiagotan antolatu behar izan dituzte Nafarroan", esan du Mireia Elkoroiribe presidenteak. Bestalde, eskualdeko bidegorri sarea bultzatzea eta Bike Innovation Hub (BIH) delako egitura sortzea ere bada beste asmoetariko bat. BIHk bizikleta bidezko mugikortasunetik erato-

rri daitezkeen "negozio berriak" sortzea du helburu. Automozioaren sektorea auto elektrikoekin aldatzen ari dela ikusita, testuingurua "aukera lez" baliatu gura du Elkoroiribek, "bizikleta bidezko mugikortasunean negozio eta lanpostu berriak sortzeko". Beste ildo estrategikoetariko batzuk al-

daketa klimatikoari eta airearen kalitateari lotuta daude.

## Oposizioa ez dago ados

EH Bilduren iritzian, aurrekontuek ez dituzte "benetako erronkak" lehenesten, eta bertan islatuta ageri diren plan estrategikoaren, komunikazio planaren eta presidentearen soldata igoeraren aurka azaldu dira. "Plan estrategikoaren beharra EAJrena" dela eta "legegintzaldia hasi denetik presidentea etenbako marketing kanpaina" bat egiten ari dela adierazi dute. Honetaz gainera, udalerriek Amankomunazgoari ordaintzen dioten kuota %6,5 garestitzea "larria" dela diote. EH Bilduk "gizarte zerbitzuak indartzea" eta "hondakin organikoaren biltzea osoa sustatzea" proposatu ditu lehentasun modura.

Herriaren Eskubideak taldeak osoko zuzenketa aurkeztu dio aurrekontuen proposamenari. Taldearen esanetan, "gizarte-larrialdietarako laguntzak %10 gutxituko liriteke".

# Hitzartutakoa "luzamendurik barik" betetzen hasia eskatu diote pentsiodunek Espainiako gobernuari

Lan erreformaren, pentsioen eta gutxieneko soldataren gainean esandakoak betetzea eskatu diote gobernu osatu berriari



Iurretako eta Durangoko pentsiodunek manifestazio bana egin eta Madalenan elkartu ziren astelehenean.

**DURANGALDEA** • EKAITZ HERRERA

Espainiar estatuko gobernu osatu berri dagoela eta greba orokor bat ate-joka dagoela. Testuinguru hori aurrean dutela, Durangaldeko pentsiodunek protesten hirugarren urtean sartu dira. Asteon, manifes-

tazio bateratua egin dute Iurretako eta Durangoko kideek. Askondotik irtenda, Iurretako pentsiodunek Durangora joan ziren astelehenean. Durangokoek ere manifestazioa egin zuten, udal plazatik hasi eta Madalenaraino. Bertan egin

zuten bat zutabe biek, eta bertan jendarteratu zituzten aldarriak.

## Gobernu ituna jomugan

Pentsiodunek pozik daude "eskuina" eta "eskuin muturra" ez direlako Espainiar estatuko boterera

ailegatu, baina "PSOeren eta Unidas Podemosen gobernu berria" ere izan dute gogoan. Maripi Mintegia iurretarrak azaldu zuenez, "zenbait alde positibo" ageri dira alderdi biek hitzartutako itunean, eta, zehatzago esanda, "pentsioei,

gutxieneko soldatari eta lan erreformari buruzko gaietan". Dena dela, beste atal asko "zeuden egoera berean", "zehaztu barik" edo "anbiguotasunean" gelditu direla azaldu zuen: "Gobernu berriari dagokio, beste luzamendurik barik, agindutakoa aplikatzea; anbiguotasunari utzi, daukana zehaztu eta pentsioen beharrari aurre egitea".

Mobilizazioak hasi zituztenetik hiru urte pasatu direla eta halantxik jarraituko dutela aurreratu zuten pentsiodunek: "Bai asteleheneroko elkarretaratzeekin eta baita bestelako ekimenekin ere".

**"Asteleheneroko elkarretaratzeekin eta bestelako ekimenekin jarraituko dugu"**

Bestalde, Matias Oregi Durangoko pentsiodunen bozeramaileak elkartasuna agertu die Lapurdiko, Zuberoako eta Nafarroa Behereko herritarrei eta Frantziako estatuko gainerako pentsiodunei ere. Pentsioen erreformari buruzko eztabaida, mobilizazio eta istilu ugari izaten ari dira han.

Urtarrilaren 30erako deituta dagoen greba orokorragaz ere bat egin dute pentsiodunek.



# ATE IREKIAK

Urtarrilaren  
24an,  
15:00etatik  
aurrera

# ZATOZ GU EZAGUTZERA



94 681 00 50 • [sanjose@durangojesuitak.org](mailto:sanjose@durangojesuitak.org)  
[www.informazaitetz.eus/ateirekiak](http://www.informazaitetz.eus/ateirekiak)

*Jhu*  
Jesuitak

Durango

Biharko ametsak, gaurko erronkak

# "Sexualitatea bera tabua da gizartean, eta hori handitu egiten da aniztasun funtzionala duten herritarrengan"

Javier Bengoa psikologo eta sexologo abadiñarrak orain gutxira arte berria zen bidea zabaldu zuen 2012an. Sexualitatea gerturatu die aniztasun funtzionala duten Gorabideko erabiltzaileei. Batzuek gaia normaltasunez lantzeko garaia bazela aitortu diote, baina oraindino mito asko dagoela dio



**Javier Bengoa Larrañaga**  
Gorabideko psikologo eta sexologoa  
Abadiño | 1962

## ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

**Gorabide elkarteak duen sexologoa da Javier Bengoa abadiñarra. Psikologoa zen hasieran, baina elkarteak erabiltzaileek sexuarekiko agertzen zuten interesa zela-eta, sexologia masterra egin zuen orain lau urte. Elkarteak Bizkaian dituen egoitzetan lan egiten du, baita Abadiñoako Atxarte egoitzan ere.**

**Aniztasun funtzionala eta sexualitatea. Tabu bi bata bestearen gainean?**

Bai. Sexualitatea bera tabua da gizartean, eta tabu hori areagotu egiten da aniztasun funtzionala duten herritarrengan. Mito asko dago. Esaten da hipersexualak direla, edo, alderantziz, sexualitaterik ez dutela. Uste da ezin dutela seme-alabarik eduki, ezin direla guraso izan, guztiak heterosexuak direla,... oraindino hor segitzen dugu. Gaiari ez diogu behar den moduan erantzuten jakin.

**Zelan hasi zineten Gorabideren zerbitzuen artean sexualitatea txertatzen?**

2012an hasi genuen sexualitateari lotutako proiektua. Pentsa, aniztasun funtzionalaren eremuan sexualitatea hain kontzeptu berri-tzailea izatera, proiektua ikerketari eta garapenari lotutako atalean sartu zen. Gorabideko guraso, tutore

eta profesionalak sexualitatearen gaiari erantzun bat emateko beharrianaz hurbildu izan zaizkigu sarri. Ikusi genuen abiapuntu modura zerbait txikia esku artean hartzea egokia zela. Kasuistika indibidualetatik hasi ginen gaia lantzen, gero hortik bidea zabaltzen joateko. Zazpi bat proiektu aukeratu eta begirale edo konfiantzako pertsona bat esleitu genion bakoitzari. Erabiltzaileek sexualitatearen arloan zituzten nahiak lantzeari ekin genion horrela.

“**Gorabideko erabiltzaileei sexualitatearekiko interesa piztu zaie; jakin-min gehiago agertzen dute orain**”

**Zein tresnagaz lantzen duzue sexualitatea erabiltzaileekin?**

Erreminta batzuk ipini ditugu begiraleen esku, gero haiek erabiltzaileekin landu ditzaten. Sexologiari lotutako askotariko gaiak planteatzen ditugu, ilustrazioen eta galdera errazen bitartez. Adibidez, honako galdetzen dugu: *zelako garran-*

“**Gauza handia da haien zalantzei erantzuna ematea. Bikote askori eta LGTB talde bati ere laguntzen diegu**”

*tzia du zuretzat besarkadak jasotzeak?*

'Handia', 'txikia' ala 'ezer ez' erantzuteko posibilitatea ematen diegu erabiltzaileei. Besarkadana adibide bat baino ez da, baina antzera bateko beste galdera asko planteatzen ditugu plazerari buruz, bikoteari buruz edo seme-alabak izateko ideiei buruz. Bakoitzaren galdetegitik irteten diren emaitzekin erabiltzaile bakoitzagaz landu beharreko helburuak markatzen joan izan gara. Horiek koordinatzen aritu naiz, begiraleekin batera.

**Erabiltzaileekin egindako lehenengo pauso horietatik hona, sumatu duzue eboluziorik?**

Interesa piztu zaie. Jakin-min gehiago dute eta galderak egiten hasi zaizkigu. Kasu indibidual batzuetan, gainera, aholkularitza sexologiko sakonagoa eskaini behar izan dugu. Ez terapia bat, baina bai horren gertuko zerbait.

Ondorioz, hiru mailatako zerbitzua eskaintzen dugu dagoeneko: proiektu indibidualak, etxeetan haien kabuz bizi diren erabiltzaileei zuzendutako heziketa sexuala, eta nigaz aurrez aurre lantzeko saioak. Gutxi gorabehera, azken urte bietan 25 bat lagun ibili dira proiektu indibidualetan, 200 bat heziketa sexuarekiko proiektuetan eta beste 30 bat nigana etorri dira aholku eske. Gauza handia da haien zalantza eta grinei erantzun bat eman ahal izatea. Bikote asko ikusten ditut eta, horretaz gainera, Gorabide barruko LGTB talde bati ere laguntzen diogu.

**Badago desberdintasunik erabiltzailearen aniztasun funtzionala azalekoagoa ala sakonagoa izan?**

Haien gorputza ezagutzeko beharrik, plazerak, ertz asko ditu. Besarkadak, laztanak, dutxan egotea, biluzik egotea,... horrelako gauze-kin euren burua ezagutzen doaz. Aniztasun funtzionalik sakonena duten pertsonengan, ostera, kontuan hartu behar da eurentariko askok bizi osoan zehar pixoi-hala izan dutela ipinita, eta biluzik egiteko zein gorputz-atalak ukitzeko aukerarik ere ez dutela izan.

**Atxarteko egoitza honetan, zelan lantzen dira sexualitateari lotutako proiektuak?**

Bikote bat dugu hemen. Ez dira elkarregaz bizi, baina erraztasunak ematen dizkiegu elkarregaz egon daitezen, berdin gela batean, hala gura badute. Landu beharreko zerbait da. Bestalde, *Zentzumenen plazera* deitzen den tailerra ere eskaini izan dugu. Gortina beltzez inguratutako leku lasai bat da, funtsean. Plazera lantzen dute, usaimenaren bitartez, masajeen bitartez, kremenekin igurtziak eginda. Gorputza ezagutzeaz gainera, plazeragaz esperimentatzeko aukera ematen

“**Gurasoetariko batzuk eskertuta agertzen dira honelako gaiak lantzen ditugula ikustean**”

diote. Erdigunean genitalak ipini beharrean, sentsualitatea, azala, ukimena... ipintzen dira. Astero erabiltzen dute. Gurasoetariko batzuk esker oneko daude. Eskertuta agertzen dira honelako gaiak lantzen ditugula ikustean. Honetarako garaia bazela dioskue.

# Berrizko Udalak nagusien egoitza eta hilerria konpontzeko proiektuak ipiniko ditu martxan aurten

EAJren aldeko botoekin onartu zituzten aurrekontuak. EH Bilduk eta Berrizen Podemosek kontra egin zuten, eta PSE-EEren bozeramailea ez zen bilkuran egon



Ezkerrean Berrizko nagusien egoitza eta eskuman hilerria.

## BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Nagusien egoitza eta hilerria konpontzea izango dira Berrizko Udalen aurtengo aurrekontuetako proiekturik garrantzitsuenetarikoz batzuk. Gobernu taldearen aldeko botoekin, 6.310.000 euroko aurrekontua onartu zuten abenduaren amaieran, iazkoa baino 200.000 euro gehiagoko aurrekontua. Aurrekontuko 433.000 euro inbertsioetara bideratuko dituzte.

Orlan Isoird alkateak jakinarazi zuenez, nagusien egoitza konpontzeko eta hilerria berritzeko proiektuak idazten hasiko dira. "Nagusiekin proiektu bat martxan daukagu eta eurek adieraziko dute

zein den nagusien egoitzarako konponbiderik egokiena", esan zuen alkateak. Hilerria "hondatuta" dagoela eta "konpondu eta txukundu" egingo dutela ere esan zuen.

## Berrizen 150.000 euro bideratuko dituzte 2020an aurrekontu parte-hartzaileetarako

Bestalde, aurrekontu parte-hartzaileek inbertsioetako diru partidarik handiena izango dute: 150.000 euro. Beste urte batez, herritarrek aukera izango dute diru horregaz zer egin erabakitzeko.

EH Bilduk eta Berrizen Podemosek, ostera, gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuen

kontra egin zuten. "Gure eskariak ez dituzue kontuan izan. Gainera, aurrekontuak eginda

zeuden jaso genituenerako", esan zuen Josu Albizuri EH Bilduren bozeramaileak.

## Hilean behin gazteentzako aisialdi ekintzak eskainiko dituzte Mañarian

Urtarrilaren 26an herri kirol probekin hasiko dute 10etik 16 urtera bitarteko gazteei bideratuko proiektu berria

## MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

10etik 16 urtera arteko gazteentzako aisialdi eskaintzan gabezia bat dagoela eta, adin tarte horretako ekintza kopurua handituko du, aurten, Mañariko Udalak, Abadiño Katalamixon aisialdi elkar-tearen bitartez.

## Abadiño Katalamixon aisialdi taldea arduratuko da hilean behin jardunaldiak antolatzeaz

Urtarriletik maiatzera eta irailetik abendura, hilean egun batean, Katalamixonek ekintzak antolatuko ditu 16 urtera arteko gazteentzatzat. Programa horretako lehe-

nengo jardunaldia urtarrilaren 26ko domekan, 11:00etan, izango da eta askotariko herri kirolak antolatuko dituzte, frontoi gaineko kiroldegian.

Urtean zehar, 10 urtetik beherakoentzat hainbat ekimen antolatu dituzte Mañarian, batez ere, guraso elkarteak, baina 10etik 16 urtera arteko "euren espazioa" falta zaiela uste du Ainara Otxotorena alkateak. Horregatik, adin tarte horretakoentzat ahalegin berezi bat egitea erabaki dute, programa berri baten bitartez.

Udala hainbat aisialdi taldegaz ipini zen hartu-emanetan, eta Abadiño Katalamixonen programak konbentzitu zituen gehien, esparru honetan duten "esperientziagatik" eta "proposatutako formatuagatik".



## GURE IRAKASLE BERRIEN AHOTSA

Zer esan dezakezue Landako eskolari buruz?



Maialen Bidosola eta Edurne Ferreria

### Zer esan dezakezue Landako eskolari buruz?

Herri oso ondo kokatuta dagoen eskola dugu. Kanpoan, instalakuntza paregabeak eta ondo zainduak ditu, haurrek jolas desberdinetan aritu daitezten. Lehenengo egunetik, guztion artean oso ondo zaindutako eskola bat dela ikusi genuen eta gure artean komentatu genuen.

Haurren aldetik, euren autonomia eta heldutasunak arreta deitzen dute. Ohituta daude taldean lan egiten, ardurak hartzen, egindako lanak besteen aurrean aurkezten eta kritika eraikitzaileak egiten. Eurak izaten dira liburuzain, pasiloizain, irrati eta telebistako teknikari, kazetari, aurkezle...

Beste eskoletan ez bezala, lana kontestuka egiten da eta txoko bakoitzean lan desberdinak egiten dira. Haurrek taldean zein banaka lan egiten dute eta Amara Berri sistemak adin hauetan haurrak beharrezkoa duen mugimendua bermatzen du.

Haurrak lanaren arabera mugitzen dira eta ez daude ez mahai berean ez gela berean eserita eskolako ordu guztietan. Inguru haurren garapen momentura moldatuta dago.

Gustura daudela ikusten da, lanaz gozatzen, lasaitasunez eta soseguz euren lanean murgilduta, bakoitza bere erritmora, eta irakaslea euren gana hurbilduz, banakako eta kalitatezko momentuak eskaini diezaizkiekegu.

Amara Berri sistemak jarraipena eta koherentzia bermatzen ditu, eta, batez ere, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara pasatzen diren momentuan ikusten da.

Haur Hezkuntzatik hasita, ingurunea haurren garapen psikomotorera moldatuta dago. Esperimentazioa eta manipulazioa protagonista dira, bizi egoeretan oinarritutako hezkuntza. Txikitatik nagusien mundua imitatuz ikasten dute. Egoera errealek ikasgune bihurtzen dira: menu bat prestatu edo telarra egiteko beharrezkoa dena erostera, dendara joaten dira erosketak egitera, lantegi bat sortzen dute, soldatak ordaindu behar dituzte. Honekin guztiarekin matematika ikasten ari dira.

Hizkuntza ikasteko, ikaskideei eskaintako antzerkiekin hasiko dira HH-n, eta Lehen Hezkuntzako lehen urteetatik hedabideetan arituko dira: irrati eta telebistako programak eguneroko eginez, eta blog-a eta aldizkaria astero argitaratuz.

### Zergatik gomendatuko zenuke Landako Eskolara joatea?

Oso sorpresa ona eraman dugulako, asko disfrutatzen dugulako bertan irakatsiz, herriko etorkizuneko biztanleen garapenean parte hartuz. Durangon eskola bakarra delako beste era batean ikasteko aukera eskaintzen duena, eta gure hiru lerrotako eskola txiki honek dituen baliabide guztiak ezagutzea merezi duelako.

Ate irekiak urtarrilaren 22an eta 25ean izango dira. Etor zaitezte!



# Durango etxebakoaren heriotzak bazterkeriarik larriena gainditu ez duen euskal gizartearen kontzientzia oihu egiten duela salatu dute

Gizarte bazterkeriaren kontrako BesteBi plataformak deituta, etxebakoaren heriotza salatu eta epe luzera begirako neurriak hartzea eskatu dute

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Joan zen astean Durango banketxe batean hildako etxebakoaren heriotza salatu, eta aurrerantzean etxebakoaren gaiari aurre egiteko eskatu dute Durango. Gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzen den BesteBi plataformak elkarretaratze- ra deitu zuen egunean, eta herritar ugarik bat egin zuten deialdi horregaz. Ikasle talde batek, esaterako, eskolak utzi eta manifestaziora batzeko erabakia hartu zuen. Hainbat jubilatu ere batu zitzaizkien, eta baita Durango Udaleko ordezkari politikoak, Eusko Legebiltzarreko kide batzuk eta arazo euren azalean sufritzen duten Durango hainbat etxebako ere.

BesteBi plataformaren esanetan, banketxean hildako lagunaren heriotzak "oihu zuzena" egiten du "oraindino bazterkeria egoerarik larriena, kalean bizi izatea, gainditu ez duen euskal gizartearen kontzientzia". Plataformak emandako datuen arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 400 inguru dira, gutxi gorabehera, kalean bizi diren bizilagunak. "Gizarte-bazterkeria egituraren errota duen sistema sozio-ekonomiko batean bizi gara. Zehatzago esateko, etxegabetasuna mantendu egin da azken urteetan, pertsonak alde batera utzi dituen



Durango herritar askok egin zuen bat egunean BesteBi plataformak deitutako elkarretaratzean.

sistema bidegabe baten ondorioz", salatu dute. Modu berean, "epe luzerako" ikuspegia hartu beharrez ere berba egin dute. "Orain arte, aterpetxeetan ipini da begirada, baina epe luzera begirako neurriak behar dira. Etxebako bakoitzari bizi proiektu pertsonala garatzen laguntzea da kontua", dio Joseba Gaya plataformako kideak.

## Heriotza "deitoragarria"

Udalak etxebakoaren heriotza deitoratu eta neurri eraginkorrak hartu beharra dagoela nabarmendu du. "Ez da onargarria garai hauetan oraindino ere gure herritan hainbat pertsonak horrelako bizi baldintzak izatea", azaldu du. "Udaltzaingoak, ohikoa denez, horrelako egoeran dauden

pertsonak lo egiteko duten aukeren inguruan (aterpea) informazioa eman zion etxebakoari. Orain, autopsiak esango duenaren zain gaude, eta uste dugu ez dela espekulatzen hasteko garaia", gaineratu dute.

## Bigarrena Euskal Herrian

LAB sindikatuak adierazi du aste

bi baino gutxiagoan etxebako lagun bi hil direla Euskal Herrian. Lehenengo urtarrilaren 3an hil zen, Donostian. "Pobreziak eta bazterketa sozialak gora egin du azkenengo urte hauetan. Horrez gainera, pobrezia larri bizi diren pertsonen kopurua nabarmen hazi da; %65 azkenengo 10 urteetan, hain zuzen ere", azaldu dute.

# Durango Udala "neurri zehatzak" eta "oinarriak" jasoko dituen plangintza garatzen dabil datozen lau urteetarako

Gobernu taldeak garatze fasean du plangintza. Otsailaren erdialdean aurkeztuko dute jendaurrean, herritarrekin batera egindako ekitaldi publikoan



Udal gobernu taldeko ordezkariak egunean egin zuten agerraldia.

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

"Datozen lau urteetarako neurri zehatzak jasoko dituen plangintza egiten gabiltza, aurrera begirako oinarriak ezarriko dituen", azaldu du Ima Garrastatxu alkateak asteon egindako agerraldian. Durango Udaleko gobernu taldeak urte hasiberria baliatu du zerumugara begiratu eta hurrengo lau urteetan zabaltzen den denbora tartea proiektuz betetzen segitzeko. "Udal honek argi du zelan gobernatu gura duen", azpimarratu du.

Garrastatxugaz batera, Julian Rios alkateordeak eta Ane Abanzabalegi zinegotziak parte hartu dute agerraldian. Oraindino lau urte horietan garatuko diren proiektuen zehaztasunik eman ez duten arren, ezaugarri orokor batzuk aditzera eman dituzte. "Pertsona guztiak

kontuan hartuko dituen proiektua dugu esku artean, erdialdean bizi direnentzat zein auzoetan bizi direnentzat, nagusientzat zein txikientzat, betiko durangarrentzat zein edozein arrazoiengatik gure herrira bizitzera etorri direnentzat", aurreratu du Riosek.

Abanzabalegi ere proiektuak barnebiduko dituen ezaugarriariko batzuk aipatu ditu: airearen kalitatea, ingurumena, kaleen garbiketa, turismoa, aparkalekuen gaia edo herriko merkataritza. Ildo horiek lantzen ari dira. Bestalde, horregaz guztiagaz, gobernu taldeak Durango "euskaldunago, feministago eta inklusiboago" bat garatu gura luke.

Garrastatxuk "garrantzitsutzat" jo du orain arte egindako bide bera oinarri hartuta segituko dutela

aurrerantzean ere. "Honaino zelan heldu garen ikustea inportantea da. Herritarrekin, udal langileen ekarpenekin, gobernazio plan adostu batez eta elkarrekin ekarpenekin ailegatu gara hona", dio.

## Gobernu taldeak Durango "euskaldunago, feministago eta inklusiboago bat" garatu gura du

Hurrengo lau urteetarako proiektu definitiboa otsailaren erdialdean aurkeztu gura du udalak. Oraingoz ez dute data eta toki zehatzik, baina aurreratu dute herritarrekin eta elkarrekin batera aurkeztu gura dutela.

## Garaiko errematan jasotako diruaren zati bat Ekuadorreko proiektu batera bideratuko dute

San Anton egunagaz batera, ohiturazko enkantea egingo dute garaitarrek, gaur, eguerdi partean, Elizabarrin

### GARAI • EKAITZ HERRERA

Aspaldiko usadioek, umore onak eta borondate onak. Ezaugarri horiek bat egingo dute aurten ere Garaiko errematan. Gaur (barikua), San Anton egunez, meza izango da Elizabarrin, 12:00etan, eta meza amaitutakoan elizpera atera eta baserriko produktuen enkantea hasiko dute herritarrek.

San Migel nagusien elkarte-kideek adierazi dutenez, askotariko produktuak aterako dituzte enkantera aurten ere. "Edozer jenero: oiloak, pastelak,

untxiak zein txorizo muturrak. Bertaratzen diren guztiek zerbait ekartzen dute, bere borondatez. Eta gero, hasiera ematen zaio enkanteari. Garaitarrez gainera, asko dira Berriztik, Durangotik edo Abadiñotik datozenak", azaldu dute. Batutako dirua elizaren beharrianetara eta Ekuadorreko proiektu batera bideratuko dute.

Behin erremata amaituta, bazkaria egitea dute aurreikusita San Migel nagusien elkarteko bazkideek. Otea Lora elkartean bazkalduko dute.



Elizabarriko elizpean egin ohi dute erremata San Anton egunez, urtero-urtero.

## Erabilera anitzeko guneak zabaldu ditu ateak izurtzarrentzat

Herritar eta elkarteek aurkezpenetarako zein entseguak egiteko azpiegitura berriagaz hasi dute urtea

### IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

2020. urtea azpiegitura berri batez hasi dute Izurtzan. Abenduan herritarren aurreko inaugurazio ofiziala eginda, urte hasieratik erabilgarri dago erabilera anitzeko gune berria, garai batean gaztelekua zegoen tokian.

Herritarrek zein herriko elkarteek erabili dezakete, aurkezpenak egiteko, ikastaroak eskaintzeko edo bestelako ekintzak egiteko. Horretarako, udaletxean egin behar da eskaera. Etorkizunean, telefono

linea ipintzen dutenean, txartel bidezko sistema automatizatu batez funtzionatuko du eta internet bitartez egin ahalko dira erreserbak.

Azpiegitura berriak espazioa zatitzeko aukera eskaintzen du. Gela handi bakar moduan erabili daiteke, baina hiru gune sortzeko modua ere eskaintzen du. Bideo emanaldiak egiteko pantaila handi bat ere badu. Alde batean umeen txokoa egin dute: mahaiak, aulkiak, liburuz betetako armairuak...



Herritarren aurrean egindako aurkezpeneko irudia.

# Ate irekiak

urtarrilaren 18 an

Ludoteka zerbitzua  
Banan-banako bisita nahi baduzu, jarri harremanetan.

11:00 etatik  
12:30 etara

**SAN ANTONIO**  
IKASTETXEA  
Irakasleon Kooperatiba  
94 681 67 76  
www.sanantonio.eus  
ikastetxea@sanantonio.eus

## ZATOZ GURERA!

# Zornotzako hainbat eragilek indarrak batu dituzte "bizitzak erdigunean ipini" eta urtarrilaren 30ean greba egiteko

Zornotzako pentsiodunek, talde feministek, gazte mugimenduak eta Harrera taldeak, besteak beste, "lan, pentsio eta bizitza duinen alde borrokatzeko" aldarria egin dute. Greba orokorrean parte hartzeko deia egin dute, "indarkeria matxista", "arrazakeria" eta lan munduko "prekaritatea" salatzen.

## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Urtarrilaren 30eko greba orokorriari begira, motorrak berotzen hasita daude Zornotzan. Gizarteko maila askotan pil-pilean dauden arazoak bateratu eta aldarri bateratua egin dute, asteon, herriko hainbat eragilek. "Hilaren 30ean kaleak betetzea beharrezkoa da hainbat zapalkuntzari aurre egiteko: indarkeriari, berdintasun ezari, prekaritateari, sexualitate eredu hegemonikoei, sexuaren arabera lan banaketari, arrazakeriari, kontsumo ereduari eta zapalkuntza guztiei", azaldu zuten. Astelehenean egin zuten agerraldia, udal plazan. Pentsiodunak, herriko talde feministak, gazte mugimendua eta Harrera taldeko kideak bertaratu ziren, besteak beste.

## Aldarri "moreak"

Maialen Arteagak talde feministen izenean eman zituen grebagaz bat egiteko azalpenak: "Feministok ere geure aldarri propioak erantzen ditugu; besteak beste, prekaritate bako bizitza, indarkeria matxistari eta heteroaraurik bako bizitza anitzak". Emakumearenganako dauden "zapalkuntzak" ere salatu zituen Arteagak; besteak beste, "sexuaren arabera lan banaketa", "edertasun kanonak", "berdintasun eza" edo "sexualitate eredu hegemonikoak".



Astelehenean egin zuten agerraldia, Zornotzako udaletxe aurreko plazan.

## Ofentsibarako deia

Zornotzako gazteriak adierazi zuten "etorkizun beltza" zain dutela. "Krisiaren aitzakiapean aplikatu diren neurri eta legeek gazteen bizitza are prekariora bilakatzen dute, eliteen mesedetan", esan zuten. "Autonomo faltsuen ka-

**"Krisiaren aitzakiapean hartutako neurriek bizitza prekariora egiten dute, eliteen mesedetan"**

suak, azpikontratazioak, lanaldi mugatuko kontratuak eta kontratu bako lanak" ipini zituzten greba orokorragaz bat egiteko arrazoi modura. Hezkuntza sistemari ere egin zioten kritika, eta LOMCE eta Heziberri proiektuak jomugan ipini zituzten. Gazteek "hezkuntza

euskaldun, feminista, inklusibo eta publikoak" aldarrikatu zituzten. Urtarrilaren 30ean "ofentsibaz" borrokatzeko deialdia egin zuten.

## "Elkartasunaren topaleku"

Harrera taldearen izenean, Fadira Belhadjik eman zituen azalpenak. "Bakoitzaren jatorrizko herria edozein izanda ere, greba elkartasunaren topaleku izan dadin gura

**"Norbere jatorrizko herria edozein izanda ere, greba elkartasunaren topaleku izatea gura dugu"**

dugu. Euskal Herritik hasi gura dugu mundu hobe eta justuago bat sortzen", esan zuen Belhadjik. Beragaz batera udal plazan egon ziren Zornotzan bizi diren gainerako familia migratzaileak eta Harrera taldeko kideak.

## Pentsiodunak ere bai

Itziar Madariagak pentsiodunen izenean egin zuen berba. Aldarrikapenak hasi zituztenetik hiru urte pasatu direla-eta, eskakizunak bete arte mobilizazioekin segituko dutela azaldu zuen.

## Tanborrada Mundialari Tanborrada Txikia batuko zaio aurten Iurretako Bakixa auzoko jaietan

Gaur Doniel Atxa jasoko dute, San Sebastian jaiei hasiera emateko; danborradarako azken entsegua ere egingo dute

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Datozen egunetan danbor hotsa entzungo da Iurretako Bakixa auzoan. Gaur San Sebastian jaiak hasiko dituzte eta zapatuan Bakixako Tanborrada Mundiala egingo dute. Zortzigarren urtea dute aurtengoa. Bestalde, domeka eguerdian Tanborrada Txikia egingo dute, lehenengoz.

Tanborrada Txikian, 3tik 12 urtera bitarteko 11-12 neska-mutil irtengo dira. Umerik txikienei ere danborra jotzeko aukera eman

guran antolatu dute, Ana Mari Duñabeitiak azaldu duenez. Izan ere, danborrada nagusia berandu hasten da 3-4 urteko umetxoentzat. "Ikusiko dugu zelan doan, oso ume txikiak egongo direlako eta baliteke laguntza behar izatea", esan du Duñabeitiak.

Bakixako Tanborrada Mundiala zapatu gauerdian egingo dute eta 25 bat danbor-jole batuko dira. 6 urte dituzte danbor-jolerik gazteenek, eta 64 nagusienak. Aurten, Bakixako Txokoko bazki-



Orain zortzi urte hasi ziren Bakixa auzokoak danborrada antolatzen. Goian, 2018an parte hartu zuten danbor-joleen familia argazkia.

**"Kantu bazkaria eta tortilla txapelketa antolatu dituzte, aurten, lehenengoz"**

deek hartu dute jaiak antolatzeko konpromisoa, orain arte ibili den taldeari lekukoa hartuta.

Asto probak, kantu bazkaria eta I. Tortilla Txapelketa batu dituzte egitarauan. San Sebastian Erromeri Band taldearen erromeria ere bai. Iaz hildako Jon Onandia abadea hartuko dute gogoan, eta auzokoen laguntzagaz osatutako jaietako argazki bildumagaz erakusketa egingo dute.

Gaur sartuko dira jai giroan Bakixan, Doniel Atxa jasota. Ondoren, danborradarako azken entsegua egingo dute. Lanak amaituta, txokolatea eskainiko zaie bertaratzen direnei. Mus arin txapelketagaz amaituko dute eguna (egitarau osoa, agendan).

# ATEAK ZABALIK

Urtarrilak 25, zapatua  
10:00etan

**KURUTZIAGA**  
**IKASTOLA**  
BIZITZEKO HEZI



ibaizabal



[www.kurutziagaikastola.eus](http://www.kurutziagaikastola.eus)



Ikastola

# GAZTAÑERRE

Urtarrilak 25  
Plateruenean

17:00etatik aurrera:  
PUZGARRIAK  
eta TAILERRAK:  
karetak, aurpegia  
margotzea...

18:00etan  
IRRIEN TAUPADAK



19:00etan  
PUZGARRIAK  
eta TAILERRAK  
TALO TAILERRAK  
GAZTAINAK...



**KURUTZIAGA**  
**IKASTOLA**





Argazkia: DRT.

## Hareek denporak!

### 30 urte Durangon errugbiaren santutegia zabaldu zutenetik

30 urte joan dira Durangon Rugby Taberna zabaldu zutela. 1989ko abenduaren 21ean egin zuten inaugurazio ofiziala. Efermeridea jaitxo batez ospatu zuten, iazko urte amaieran.

1986an sortu zuten errugbi taldea, eta hiru urte geroago zabaldu zuten taberna, klubari sostengu ekonomikoa emateko eta errugbi zaleen bilgune izateko helburuz. Harrezkero, helburu biak lortu ditu.

Lehenengotan lokal modura funtzionatzen zuen, jaietan eta egun seinalatueta txosna ipinita. Gerora, beste pauso bat eman eta taberna modura atontzera animatu ziren klubeko kideak, eta proiektua auzolanean eraman zuten aurrera.

1989tik hona, Rugby Tabernak behin baino gehiagotan aldatu du barruko itxura, baina sortu zen helburuetako esentziari eutsita.

## Lau hankako mahaia

Mireia Elkoroiribe  
Zenikaonandia  
EAJ  
Udal Taldearen  
bozeramailea



### Tokiko merkataritza, herri baten bihotza

Gabonak heltzen direnean, amagaz Durangora egiten nebazan bidaiak gogoratzen dodaz urtero.

Durangoko kaleetan zehar ibiltzea izugarri gustatzen jatan. Eskapareak ikusi, gabonetako apaingarriak aukeratu, Exquisitan turroiak erosi, makarroiak Bartolon, merkatu plazan arraina enkargatu, liburu berrien bat aukeratu Ochoanean, eta horrekin, irri-fartsu eta poltsaz kargatuta, berriro autobusez etxera bueltatzea sekula-kokoa izaten zan.

Orain be herriko kaleetatik paseatzea, bertoko merkataritzaz, jendeaz eta bizitzaz gozatzea zoragarria iruditzen jat. Tokiko merkataritza herri baten bihotza da. Inoiz galdu beharko ez gendukeen altxorra. Baina aurten, aspaldiko ariketa berdina egitean, eta Durangon hainbat dendak itxita ikustean, gure bihotza makal dagoela somatu dot eta horrek tristura ekartzeaz gainera, hausnarketara eroan nau.

Durangoko dendek izen-abizenak dabez. Amaia, Iñaki, Agurne, Edu, Aintzane, Koro, Fausto, Nerea eta beste hamaika, beti dagoz guri atenditzeko prest. Goizero pertsiana igotzen dabe euren produkturik onenak eskaintzeko eta ondo jatorikuna gomendatzeko. Izan be, betidanik ezagutzen gaitue eta ondo dakie zer komeni eta gustatzen jakun.

Hau holan izanda, itzi daiguzan alde batera interneten preziorik onena bilatzearen erosotasuna edo pisuagaz ibiltzearen alferra, eta egin daiguzan erosketak bertoko dendetan. Gure aldetik, EAJ taldetik, honetan ahalegina egiteaz gainera, udalari hainbat proposamen egin dautsaguz Durangoko merkataritza bultzatzeko. Danon altxorra da, danon artean zaindu behar doguna.

## Durungaldea asteen

### Aita Menni ospitaleak 2.000 kilo elikagai batu ditu Lesboseko errefuxiatuei bidaltzeko

**Durango** | Joxe Miel Barandiaran adinekoen egoitzan janari bilketa egin dute. Batez ere, elikagai ez iragankorrak batu dituzte: garbantzuak, dilistak, olio... Batutakoa Lesbosera (Grezia) bideratuko dute. Aita Mennitik egindako bilketa Zaporeak Gobernu Kanpoko Erakundeak abiatutako kanpainaren barruan dago. Erakunde honek Lesbosen dauden errefuxiatuei laguntzen die.



### Iurreta Durangotik desanexionatu zela 30 urte bete direla gogoratu du udalak

**Iurreta** | 1989ko azaroaren 13an onetsi zen, Gernikako Juntetxean, Iurreta elizatea Durango udalerritik bereiztea. Erabaki horren ondorioak 1990eko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean. Urteurrena gogoratuz adierazpen instituzionala egin du udalak. "Herri lez gure nortasuna berreskuratzera bultzatu gintuzten arrazoiak oraindik ere indarrean daude", azaldu dute.

### Dendak Baik etxerik etxeko 1.663 banaketa egin zituen iaz, 2018an baino %16 gehiago

**Durango** | Emaizta "oso arrakastatsua" izan dela adierazi du elkarteak. 2019an egindako banaketan kopurua %16 igo zen 2018an egindako banaketekin alderatuta. 1.432 banaketa egitekin 1.663 egitera pasatu da. Banaketok bizikletan egin dira. Igoerarik garrantzitsuenak abenduan izan zen. 2018ko abenduagaz alderatuta, banaketa eskariak bikoiztu egin ziren. Bestalde, Dendak Baik gogora ekarri du etxerik etxeko banaketa bizikletan egiten dela eta "ingurumenagaz jasangarria" dela.



### Txaber Altubek Donostiako Mikel Laboa bertso sariketa irabazi du

**Abadiño** | Txaber Altube bertsolari abadiñarrak Mikel Laboa bertsolaritza sariketaren zortzigarren edizioa irabazi du. Bertan parte hartzen duen bigarren aldia du eta lortutako txapelagaz "oso pozik" dago. "Saioa polito joan zen. Kantukideak ere ederto aritu ziren", azaldu du. Saioa joan zen domekan jokatu zen, Donostiako Antiguoa auzoan, hango jaien barruan. Altube Oihana Arana lehiakide eskoriatzarragaz batera heldu zen buruz burukora. "Kosta egin zitzaidan saioari buelta ematen. Kartzelako saiotik nentorren, kanpoan hoztu ere egin nintzen, eta, zelanbait, arreta galduta nentzen. Baina, azkenean, jakin nuen neure burua kokatzen", azaldu du Altubek.

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko

**helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



# JAIIAK!

BERRIZ 2020  
SAN ANTONIO JAIIAK

## Antonio Deuna Jaiiak

EGITARAUUA



[www.berriz.org](http://www.berriz.org)

**Berrizko Udalak  
jai zoriontsuak  
opa deutsuez**



**San Antonio jaiak 2020****Urtarrilak 17, barikua****12:00** Meza Antonio Deunaren basilizan.**19:00** Olakueta kalejira Bentazarreko Mutiko Alaiak taldearen eskutik.**19:30** Sagardotegi ibiltaria eta odoloste jana, Olakueta plazan.**20:00** Nesken Gomazko pilota partidua, Olakueta frontoian. Ondoren, San Antonio XIV. Pilota Txapelketa - Finalak.**Urtarrilak 18, zapatua****12:00** Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak 'Zoro Gaitezen' ikuskizunagaz, Olakueta frontoian.**17:30** Super Disko festa 'Soun 4', probalekuan.**20:30** Sambalu Aye kalejira, Olakueta.**21:00** Kontzertua: Qverno + Kohatu, Kultur Etxean.**Urtarrilak 19, domeka****11:00** Eskualdeko XXXIX. Barazki eta Fruitu Erakusketa, probalekuan.**11:30** Umeentzako tailerrak, Olakueta plazan.**12:00** Baserriko oilasko dastaketa, Olakueta plazan.**13:00** Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeak, Olakueta plazan.**19:00** Rock Classical Trio "Classics in The Rocks", Antonio Deunaren basilizan.**Urtarrilak 20, astelehena****17:00 -19:00** Barraken merkealdia.**19:00** Askaria eta Nekazaritza Olinpiada, frontoian.**Urtarrilak 24tik 27ra**

LXIV. Antonio Deuna Sari Nagusia.

**Urtarrilak 28, martitzena****19:00** Donien Atxa kentzea.**21:00** Olakuetarren afaria.

 **COMERCIAL AGRICOLA  
BASERRI TRESNAK** 

Nekazaritzako eta lorezaintzarako makinaren salmenta eta konponketa  
Tel.: 94 682 40 87 - Pol. Ind. Eitua, 66 - BERRIZ  
[www.baserritresnak.com](http://www.baserritresnak.com)

 **Ibai Ondo**  
Ferreteria · Burdindegia

Iturriza, 10  
946 824 489  
f 946 824 489  
[ferreteriaibaiondo@gmail.com](mailto:ferreteriaibaiondo@gmail.com)  
BERRIZ

**ORLEGI** **TABERNA**

Iturriza, 5 BERRIZ  
Tel.: 946 824 828

**HIERROS**  
**RIEZU S.A.**  
burdinak  
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131 - Faxa: 946 824 390 - [hierrosriezu@telefonica.net](mailto:hierrosriezu@telefonica.net)

**Egun** 

**Okindegia  
Gozotegia  
Kafetegia**

Iturriza, 21 - Berriz  
946 550 902

**ETXEBARRIA**  
ESTANKOA

Iturriza, 14  
Tel./Faxa: 946 827 958  
BERRIZ

# "Sua apur bat kontrolpean edukitzea, beste sekreturik ez du odolosteak prestatzea"

Urteetako usadioari eutsiz, 100 bat kilo odoloste egosiko dituzte, gaur, San Antonio jaien barruan, Olakueta plazara doazenei eskaintzeko



**Begoña Gerenabarrena Zuazo**  
Berriz | 1946

**BERRIZ** • ATZIBER BASAURI

**Berriztarrak San Antonio jaietan murgilduta daude. Hurrengo egunetan, hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera ezin hobea izango dute bertakoek eta kanpotik doazen bisitariak. Urteetako usadioari eutsita, gaur, 19:30ean, odolosteak dastatzeko aukera egongo da. Jatekoari laguntzeko, sagardotegi ibiltaria ere antolatu dute. Begoña Gerenabarrena urteak daramatza jaietan odolosteak prestatzen, Toki-Ona jaietxean lehen eta Learreta-Markina eskolako sukaldean orain. Aurten ere ez du hutsik egingo.**

**Zenbat urte daramatzazu odolosteak prestatzen jaietarako?**

Ez dakit esaten, baina 15 urtetik gora izango dira. Toki-Ona jaietxean hasi ginen odolosteak egosten. Bertako sukaldean lan egin dut, 40 urtean. Lau anai-arrebon artean eraman izan dugu negozioa, gurasoek utzi eta gero. 2012an itxi egin genuen jaietxea, Gabon zahar egunean. Orduan utzi nion odolosteak prestatzeari, urtebetez bada ere. Gero, San Antonio jaietan Learreta-Markina eskolako sukaldean prestatu zituzten odolosteak. Ez ei ziren oso ondo konpondu, eta galdetu zidaten ea eskolako sukaldera joan nintekeen odolosteak prestatzera.

Eta horretan nabil harrezkero. Miren eta Agus ere ibiliko dira odolosteak kozinatzen.

**Zenbat odoloste egosten dituzue? Badago sekreturik?**

Odolosteak eginda ekartzen dizkigute, egosteko prest. Beraz, ez du lan askorik eskatzen, egostea baino ez. Sua apur bat kontrolpean eduki-

**" Herrian bizi ez den berriztar asko etortzen da jaietan eta asko gustatzen zait elkar ikustea "**

tzea, beste sekreturik ez du odolosteak prestatzea. Guztira, 100 bat kilo odoloste egosten ditugu.

**Jende asko joaten da Olakueta plaza odolosteak jatera?**

Bai, asko. Eguraldi onagaz, batez ere. Bertakoak eta inguruko herrietakoak ere etortzen dira.

**Herriko jaiak lanean bizi izan dituzu urte askoan...**

Bai, sukaldean. Lan askogaz. Gogoan dut Egan erromeria taldea etortzen zela afaltzera, eta angulak eskatzen zituztela beti, garestitu egin ziren arte. Galdetu ziguten

angulengatik, baina, ordurako, enkarguz baino ez genituen ateratzen. Garai batean oso indartsuak ziren San Antonio jaiak. Orain baino gehiago esango nuke. Dena dela, orain ere egitarau polita prestatzen dute jaietarako, denen gustua betetzea zaila izaten den arren.

**Orain beste era batera bizi dituzu herriko jaiak.**

Bai, lasaiago. Aldea dago. Taberna edo jaietxeko lana oso gogorra da. Gogoan dut, adibidez, zapatuan erromeria izaten bazen, biharamunean goiz zabaldu behar genuela, nekazaritza produktuen azokarako. Jendea gosaltzera etortzen zen, salda hartzera ere bai. Salda lapikokada prest eduki behar genuen jaietan, egunero. Taberna prest edukitzeko, bizkortu beharra zegoen. Orain, prestatzen dituzten oilasko pintxoak probatzera joaten naiz.

**Zer gustatzen zaizu gehien?**

Mezara joaten naiz eta, gero, pintxoren bat edo tragoren bat hartzen dut. Dantzariak ere ikusten ditut; semea eta ilobak dantzariak ditut. Herrian bizi ez den berriztar asko etortzen da jaietan, eta asko gustatzen zait elkar ikustea. Donien Atxa jasotzen ikustera ere joaten naiz.

**Hotza egiten du sasoi honetan...**

Fresko egiten du, baina ondo jantziz gero ez dago arazorik.

CERAMICAS  
**MACOBER**

ZERAMIKA ETA GRESA  
DEKORAZIOA ETA APAINKETA  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m<sup>2</sup> BILTEGI - 800 m<sup>2</sup> ERAKUSKETA *Horri eta ikasi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 [www.macober.com](http://www.macober.com)

**GAER** DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

**keinu**  
OPTOMETRIA ZENTROA  
PSE: 162/13

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Naia Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
[www.keinuoportmetriazentroa.com](http://www.keinuoportmetriazentroa.com)

**Azkonizaga**

Edari banaketa  
GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK  
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58  
[azkonizaga@azkonizaga.com](mailto:azkonizaga@azkonizaga.com)

**pedro juan**  
JAIETXEA

SAN ANTONIO, 1.  
48.240 BERRIZ BIZKAIA  
TEL: 94.682.62.46



# Ostalaritza gida

anboto

 Durango



**PLATERUENA** Kafe antzokia  
Landako etorbidea, 4 - DURANGO  
**Tel.: 946 030 300**  
[www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Egunero zabalik. Menu bereziak,  
egunerokoak, taldeentzakoak eta  
ospakizunak.

 Iurreta



**GAUARGI**  
Dantzari, 4 behe - IURRETA  
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta  
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.  
Asteleheneretik ostiralera: Menu erdiak  
6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta  
jaiegunetan rabak.

 Durango



**OLAJAUREGI JATETXEA**  
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO  
**Tel.: 946 200 864**  
[www.olajauregi-jatetxea.com](http://www.olajauregi-jatetxea.com)  
Eguneko menuak, bereziak,  
taldeentzakoak eta ospakizunak.  
Egunero zabalik.

 Durango



**GORA GORA**  
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO  
**Tel.: 946 811 384**  
Plater konbinatuak, hanburgesak,  
ogitartekoak eta kazolatxoak.

 Abadiño




**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**  
Eguneko menuak eta asteburuetako  
menu bereziak. Goizetik pintxoak.  
Giro oso ona.

 Durango



**MIKELDI TABERNA**  
Kalebarria, 7 - DURANGO  
**Tel.: 944 073 988**  
Alde zaharrea kokatuta.  
Pintxo gozoak eta giro alai.



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**





## Maitasunari buruz

HITZALDIA **DURANGO :: Urtarrilak 24**

### Yolanda Arrieta idazleak berbaldia eskainiko du

Yolanda Arrieta idazle gipuzkoarrak emango duen berbaldiagaz hasiko dute Hitzez eta Ahotsez literatur jardunaldia aurten. Zazpigarren aldia duen ekimenak *Maitasuna* izango du hizpide

oraingo honetan, antolatzaileek jakinarazi dutenez. *Hamaika letra maitasunari* berbaldia eskainiko du Yolanda Arrietak, urtarrilaren 24an, Durangoko Arte eta Historia Museoa.

### Urtarrilaren 17an

**ABADIÑO zine emanaldia** 'Amama' filmaren emanaldia, 18:00etan, Errota kultur etxean. Gero, solasaldia Iraia Elias aktoreagaz.

**ABADIÑO San Anton** San Anton egunaren ospakizuna, Urkiolako Santutegian. Animaliak eta barazkiak bedeinkatuko dituzte.

**DURANGO solasaldia** Literatura solasaldia: 'Honetara ezker' (Arantza Iturbe) liburua berbagai, 18:00etan, Andragunean. Mireia Delgadok eta Marisa Barrenak bideratuta.

**GARAI San Anton eguna** Erremata, 12:30ean, Elizabarriko elizpean. **Bazkaria** izango dute San Migel elkarteko bazkideek, 14:30ean, Otea Loran.

**IURRETA antzerkia** 'Rita' (Txalo Produksioak), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Anderebide elkarteak antolatuta.

**IURRETA Bakixako jaiak** Doniel Atxa jasotzea, 18:30ean. **Danborradako azken entsegua**, 19:00etan. Ondoren, txokolatada. **Mus arin txapelketa**, 22:00etan.

**ZORNOTZA antzerkia** 'Camiselle' (La Pacheca Collective), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

### Urtarrilaren 18an

**IURRETA Bakixako jaiak** Asto probak, 18:30ean. **Tortilla txapelketa**: 21:30ean aurkeztu behar dira. **Bakixako VIII. Danborrada Mundiala**, 00:00etan. Gero, **San Xebastian Erromeri Band** taldeagaz erromeria.

### Urtarrilaren 19an

**DURANGO antzerkia** 'Kaskarot' (Atx Teatroa), 18:00etan, San Agustin kulturgunean. 6 urtetik gorako publikoarentzat.

**DURANGO musika** Idoia Bediaga, 13:00etan, The 80's tabernan.

**ELORRIO antzerkia** 'Musikarium' umeentzat ikuskizuna, 17:00etan, Arriola antzokian.

**IURRETA Bakixako jaiak** Meza santua lurretako koruak abestuta, Jon Onandia abadearen omenez, 11:00etan. **Mikel Deuna dantza taldearen saioa**, Ondoren, **Danborrada Txikia. Kantu bazkaria**, Eingo taldeak alaituta, 14:00etan (txartelak salgai lurretako Bodegilla tabernan). **Maiztegi herri eskolako dantza taldearen saioa**, 17:30ean. Ondoren, **Betibizi abesbatzaren saioa**. Jarraian, **umeentzat jolasak eta txokolatea**.

### Urtarrilaren 20an

**IURRETA Bakixako jaiak** Meza, 12:00etan. **Briska txapelketa**, 17:00etan. **Igel txapelketa**, 19:00etan. Ondoren, txokolatea, **jaiei agurra emateko**. Egunean zehar trikitilariak egongo dira jai giroa alaitzen.

### Urtarrilaren 21ean

**DURANGO berbaldia** Urteak joan ahala aldatzen goaz, aldaketak ekidin ditzakegu?, 18:00etan, Nagusien Zentroan. Hizlaria: Itziar Benito psikologoa.

**ZORNOTZA zinekluba** **KINE zinekluba:** 'Pj Harvey: A Dog Called Money' (2019, Irlanda. **Seamus Murphy**), 20:15ean, Zornotza Aretoan. Aurretik, zineforuma egongo da, 18:45etik 19:45era.

### Urtarrilaren 23an

**DURANGO antzerkia** Boluda Kabareta: 'Juntos' (Fanny Giraud), 21:00etan, Plateruena kafe antzokian.

**DURANGO musika** Maskaradun DJ-a, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan. Jan&Jai egitarauan.

## Urtarrileko agenda



<b>17</b>	<b>"ZALDAI MENDI TALDEA - ESKI IRTEERA FORMIGALEKO ESKI ESTAZIORA"</b> Izen-ematea: alluitzmenditaldea@gmail.com abenduaren 30etik urtarrilaren 5era BAZKIDEAK. Urtarrilaren 5etik aurrera <b>BESTEAK</b> <b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> 17:00 Sukaldaritza tailerra: pizzak <b>Antzerkia aretoan kultura Saila - Anderebide Emakumeen Elkarte Ibarretxe Kultur Etxea</b> 19:00 Antzerkia: "Rita" (Sarrera gonbidapenagaz) <b>Bakixako Jai Batzordea</b> 18:30 Jaiei hasiera emateko, Doniel Atxa jasoko da. 19:00 Danborradako azken entsegua. Ondoren, txokolatada 22:00 Mus arina
	<b>"BAKIXAKO JAI BATZORDEA"</b> 18:30 Asto probak. 21:30 Tortilla txapelketa (aurkezteko ordua). 22:00 Bakixako VI. Tanborrada Mundiala. Ondoren, erromeria San Xebastian Erromeri Band taldeagaz.
<b>19</b>	<b>"BAKIXAKO JAI BATZORDEA"</b> 11:00 Meza Jon Abdearen omenez Iurretako koruak abestuta. Jarraian, Mikel Deuna Dantza taldearen saioa. Ondoren, danborrada txikia. 14:00 Kantu bazkaria Eingo taldeak alaituta; txartelak lurretako Bodeguilla tabernan salgai. 17:30 Maiztegi Herri Eskolako dantza taldearen saioa. Jarraian, ume jolasak eta parte-hartzaileentzat txokolatada.

### Urtarrilaren 24an

**BERRIZ antzerkia** 'Hansel eta Gretel' (Borobil Teatro), 18:15ean, Kultur Etxean.

**ELORRIO antzerkia** 'Zaldi Urdina' (Artedramak + Axut! + Dejabu), 20:30ean, Arriola antzokian.

**IURRETA ikastaroa** Pyssla tailerra, 17:30ean, Etxego gaztelekuan. IU Gazte programaren barruan.

### Urtarrilaren 31ra arte

**ZORNOTZA erakusketa** World Photographic Cup 2020ra izendatuak izan diren De Pedro argazkilarien lanak, Zelaieta Zentroko erakusketa gelan. Naturari buruz egindako argazkiak daude ikusgai.

### Otsailaren 13ra arte

**ELORRIO erakusketa** 'Arima hondartua' (Jon Rodriguez Bilbaoren argazkiak), Iturri kultur etxean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Zine- ma

:: Durango  
ZUGAZA

- **Bad Boys for life**  
barikua 17: 19:30/22:00  
zapateria 18: 17:00/19:30/22:30  
domeka 19: 16:30/19:00/21:30  
astelehena 20: 18:30/21:00  
martitzena 21: 20:00  
eguztena 22: 20:00
- **Jojo Rabbit**  
barikua 17: 19:30/22:00  
zapateria 18: 17:00/19:30/22:30  
domeka 19: 16:30/19:00/21:30  
astelehena 20: 18:30/21:00  
martitzena 21: 20:00  
eguztena 22: 20:00

- **Los consejos de Alice**  
barikua 17: 19:30/22:00  
zapateria 18: 19:30/22:30  
domeka 19: 19:00/21:30  
astelehena 20: 18:30/21:00  
martitzena 21: 20:00  
eguztena 22: 20:00
- **Spy cat**  
zapateria 18: 17:00  
domeka 19: 16:30

:: Elorrio  
ARRIOLA

- **La hija de un ladrón**  
zapateria 18: 22:00  
domeka 19: 20:00  
astelehena 20: 20:00

:: Zornotza  
ARETOA

- **Richard Jewell**  
zapateria 18: 19:30  
domeka 19: 20:00  
astelehena 20: 20:15
- **Handia**  
zapateria 18: 20:15
- **Espías con disfraz**  
zapateria 18: 17:00  
domeka 19: 17:00



**“Edo hondoratu edo gora egin bizirauteko. Bigarrena erabaki genuen. Gutxiago gara, baina indar gehiago dugu”**

Kohatu talde gazteak etxean aurkeztuko du estreinu 'Oskolak' lan luzea, Berrizko Kultur Etxean, urtarrilaren 18an. Metal doinuak alboratu barik, abesti berriek abiadura eta trinkotasunean irabazi dute; Qvernogaz batera joko dute kontzertua

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

**Egokitu zaien sasoi korapilotsua nabarmen gainditu dutela esan dezakete Kohatuko kide gazteek. Joseba Romerok (gitarra eta ahotsak), Martin Sarasketak (bateria) eta Xabier Gutierrezek (baxua) hirukote lez jarraitzea erabaki zuten Bingen Bañosek taldea utzi eta gero. Hasi berri den 2020 honetan 'Oskolak' kaleratu dute, euren lehenengo lan luzea. Asier Alejok ere parte hartu du Juan Blas ezagunak [Nothink, Minor Empires...] Madrilen duen estudioan eginiko grabaketan.**

**Nolako prozesua izan da 'Oskolak' erditzekoa?**

**Joseba Romero:** Disko hau kolpe bat izan da mahai gainean, eta indar hori biltzen ahalegindu gara abestietan. Mezu sozial asko ere badago.

“

**Bukle moduko batean geunden, hemen edo inguruetan kontzertu bi jota urtean”**

—

**Martin Sarasketa:** Maketa grabatu osteko sasoi nahiko kateatuta geunden. Gero, Bingenek taldea utzi zuen eta hirukote lez jarraitzea erabaki genuen.

**J.R.:** Hondoratzea edo gora egitea bizirauteko. Horixe zen gakoa. Eta bigarrena erabaki genuen. Taldean gutxiago gaude, baina indar gehiago dugu.

**M.S.:** Oskolaren kontzeptua Oihana Iguaran bertsolariari irakurri nion testu batetik dator. Izaki bizidun gehienek oskola babesteko dutela zioen; guk, ostera, hezurdura barruan dugu. Hauskortasunari buruz berbetako modu hori asko gustatu zitzaidan.

**J.R.:** Oskola norberaren babesgune lez ere ikusten dugu. Azken finean, norbera ziur sentitzen den gune hori, askotan gorde egiten duguna: izan daiteke gitarra jotzea, rallyak... Kontzeptu horregaz jolastu gura genuen. Diskoaren azalean ere hori irudikatu gura genuen. Izeberg moduko baten punta ageri da, barruan gehiago duena. Silvia Marin arduratu zen diseinua egiteaz.

**Musikari dagokionez, norantz jo duzue lan berri honetan?**

**M.S.:** Hiru partaide izateak estiloa moldatzera eraman gaitu. Kantak beste ikuspuntu batetik egitera behartu gaitu, baina abestiak entzun eta Anestesia edo Kuraia datozkit burura, lehen bezala.

**J.R.:** Hiru izatera, abestiak irauten duen hiru minutuak zukutzera behartuta gaude. Dena eman behar da, ez dago-eta beste aukerarik. Geldiuneak hartuz gero instrumentuagaz, laburra izan behar da, oso ikusgai zaudelako.

**Madrilen grabatu duzue.**

**J.R.:** Lehen esandakoagaz lotuta, hau gure urtea da: gauza berriak probatu edo taldeagaz jarraitzeak ez luke zentzurik izango.

**M.S.:** Bukle moduko batean geunden, hemen edo inguruetan kontzertu bi jota urtean. Esan beharra dago Berrizko Udalak asko lagundu digula; euskarazko kultur ekoizpenak bultzatzeko duen partidatik laguntza jaso dugu.

**J.R.:** Horrela, aukera bi ikusten genituen: lasaiago ibili hemengo estudio batean grabatzen, edo arriskatu eta ausart jokatu. Bigarrena aukeratu genuen eta Madrilera joan ginen guretzat idoloa den Juan Blasegaz grabatzera. Oso erraz joan zen dena eta oso gustura aritu gara. Diskoaren grabazioan arreta handia ipini gura genuen, eta horretarako ere oso baliagarria izan da. Astebete pasatu genuen elkarregaz, buruan diskoaren grabazioa baino ez genuela.

**M.S.:** Lehenengo egunean urduri geunden eta gehiago kostatuko zitzaigun beharbada. Hor kolokan ikusi nuen diskoa, baina gero ondo joan zen dena. Guretzat sekulako esperientzia izan da, inoiz ere ez dugulako grabatu profesionalki. Asko ikasi dugu. Oskolak, kontzeptu moduan ere, estudioan bertan irten zen.

**J.R.:** Apustu guztietan lez, ondo edo txarto irten zitekeen eta erronka gainditu dugula uste dugu. Orain, jendeak diskoa entzutea gura dugu, ea gustuko duen.

**Erronka hau bultzada bat ere izango zen zuentzat.**

**M.S.:** Bai. Xabier Gutierrezek Bilbora joan behar izan du lan kontuengatik. Grabatzerakoan, Asier Alejoren laguntza eduki dugu. Hilabeteetan, diskoko abesti guztiak ikasi zituen. Diskoa salbatu duela esan daiteke. Laurona da disko hau.

“

**Hiru izatera, abestiak irauten duen hiru minutuak zukutzera behartuta gaude. Dena eman behar da”**

—

**Zapatuan zuzenean aurkeztuko duzue, Qvernogaz batera. Gogotsu zaudete?**

**M.S.:** Laguntza jasotzerakoan, udalaren baldintzetariko bat lana Berrizen aurkeztea zen. Niri egundoko ilusioa egiten dit; Qvernoko Alain laguna da, gainera.

**J.R.:** Kontzertu berezia izango da. Berrizko jaiak dira eta 360 graduko formatuan izango da, gainera. Presio apur bat ere badugu, eta etxeko lanak eginda eraman beharko ditugu, baina oso gogotsu gaude kontzerturako.

**Durangaldeko azken  
albisteak jaso gura  
dituzu?**



**Batu  
Anbotoko  
whatsapp  
taldera**

**Bidali ALTA**

**688 635 041**

**telefono zenbakira**



**Izan zaitez berriemaile ere.**

**Bidali zure argazki eta bideoak**

# Ezberdina izateari beldurrik ez izateko aldarria duen 'Kaskarot' antzezlanak dakar ATXek Durangora

Familiantzako emanaldia domekan izango da, 18:00etan; 4 euroan erosi ahalko dira sarrerak; Maryse Urruty, Jon Koldo Vazquez, Natxo Montero eta Gartxot Unsain dira antzezleak; azken honek zuzeneko musika ere jotzen du

## ANTZERKIGINTZA • A.M.

Gizarte distopiko batean kokatzen da ATX teatroaren 'Kaskarot'. Dantzatzea debekatuta dagoen gizarte batean bizi da Aner. Honi, baina, izugarri gustatzen zaio dantzan egitea, eta horrek arazo larriak sortzen dizkio. Kaskarot alter egoa sortuko du eta honek egoerari buelta ematen lagunduko dio. Domekan izango da emanaldia, 18:00etan. Sarre-

**Gitarra elektrikoa eta eskusoinua lagun, Gartxot Unsainek narratzaile papera du**

rak 4 euroan erosi ahalko dira. Arantza Arrazola San Agustín kulturguneko teknikariaren esanetan, familia ikuskizun hau "ez da ohikoa". Gartxot Unsainek (berak idatzi du obra) agure narratzailearen papera du eta istorioak aurkeztuko dizkie umeei,

gitarra elektrikoa eta eskusoinua lagun dituela. "Ikuskizunean zehar hainbat gai azaleratuko dira: ezberdina izateari beldurra, lehenengo harremanen lotsak eta 'ni naizen hori' homonorma-

tibitatearen aurrean defendatzea, besteak beste", azaldu dute ATX teatroko kideek. Unsainez gainera, Maryse Urruty, Jon Koldo Vazquez eta Natxo Montero antzezleak igoko dira taula gainera.

## 'Kaskarot' Durangaldean

Kaskarot Elorrion eta Berrizen egongo da ikusgai, otsailaren 23an eta 28an, hurrenez hurren; martxoaren 21ean Zornotzan egongo da ikusgai.



'Kaskarot'.

# Iurretako Antzerkia Bultzatuz jaialdia 'Rita' antzezlanagaz abiatuko dute

Gaur izango da emanaldia, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean; sarrera doakoa da



Aitziber Garmendia eta Joseba Apaolaza. DAVID VICENTE.

## ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Txalo konpainiaren ekoizpena da *Rita*. Obra honetan Frank (Joseba Apaolaza) eta Rita (Aitziber Garmendia) dira protagonistak. Lehenengoa unibertsitateko irakaslea da; Rita, ile-apaintzailea. Bien harremana da obraren ardatza. Begoña Bilbao da antzezlaneko zuzendaria.

Zazpi antzezlan eskainiko dira ekainera bitartean Ibarretxe kultur etxean. Kalez Kale kaleko antzerki jaialdiagaz lez, ekimena herrian sustraitzea gura du Iurretako Udalak; kasu honetan, Anderbide elkarteagaz elkarlanean antolatzen dute jaialdia. Emanaldi guztiak doakoak dira, baina gonbidapenak aurretiaz eskatu egin beharko dira.

## Gai librea

Antton Uriarte Salterain  
Musikaria



## Game Over

Halakoak gara, ez esan ezetz. Nekez gara gai egunerokotasunaren gurpil-zurrumbilo horren inertziatik jauzi egin eta denboran haustura bat sortzeko eta.

Nik horregatik atsegin dut, hein batean, urteari zifra aldatzea, egutegiak berak ezarritako mugarri bat izanik ere, jolaserako karta berriak zeintzuk izango diren zirrara hori sentitzera auto-behartu eta partida berriari ekitea.

Gustatzen zait berriz ere abiatzea, jokamolde berriak deskubritu eta berauekin jolastera ikasi behar izatea.

Bestela iruditu arren, bideojokoetan hala guk ere, Mario Brosen antzera badugu-eta aukera pantailetan aurrera egin ahala higitu arren, mundu berrietara heltzekoa.

Izango da jolasa txanpon guztiak jasota bukaerara urratu egin gabe txukun iritsiko denik. Izango da aurrera egiteko botoitik atzamarrik jaso ez eta arrapaladan, behin eta berrero, leku berean ez jausteko derrigorrean zoria behar duenik ere. Eta bada, nahitaez, onena eman eta ez erortzeko kontuz, amildegia horretan dantzan dabilenik; bukaerara heltzeko letra larriz *Game Over* irakurri eta urratuen higitzeaz ikasi behar izan duenik.

Eta hala doazkigu urteak.

Niri behintzat, datozkidala saihestu beharreko oskolak eta zomorroak, aldika indartuko nauten ondoak eta ahulduko nauten arantzak, argituko nauten izarrak eta aurka izango ditudan munstroak, urratu nahi ditut bizitzak eta dastatu *Game Over*ak.

Datorren urtean, atzera begiratuta ikasitakoaz, aurrera begiratu eta jolasaz emozioz gozaten jarrai dezadan.

**Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura**

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta  
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194







# Gremioen gida

anboto

**Eraikuntza eta birgaikuntza**

**ARRETXE GESTION**  
ERRAIBUNTZA ETA BIRGAIBUNTZA

TXALETAK - TXOKOLAK  
FATKADAK - BASERRIAK  
ETXEBIZITZAK - TEILATUAK  
NABEAK - ERATSEETAK  
INPERMEABILIZAZIOA  
MARMO LGINTZA - HAR GINTZA

GREMIOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

WWW.ARRETXEGESTION.COM  
INFO@ARRETXEGESTION.COM  
658 120 215 ZORNOTZA / BIZKAIA

**Zurgintza**

**leike** aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

**Iturgintza**

**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

Instalzaile baimendua

659 673 790  
unaigaray@yahoo.es

**Iturgintza**

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

**Iturgintza**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO 188 PK.

**Iturgintza**

**ALDEKOA-OTALORA**  
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA  
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com  
Zubiainre, 8 IURRETA  
946 202 768  
Arzubia 10 B Industrialdea, 13-14 pabilioiak ABADIÑO  
944 071 791 - 692 852 779

**Zurgintza**

**ATERPE ARROTZAK**  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
www.carpinteriaaterpe.com

**Dekorazioa**

**JAIObarnizatuak**

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com

**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



# “60 urte ditut eta 60 maratoi amaitu ditut; aurrerantzean, maratoien zenbakia urteena baino handiagoa izatea dut helburu”

Belaun batek buruhaustea ematen dizkon arren, oraindino ez du uzteko asmorik eta maratoien zerranda luzea handitzen jarraitzeko asmoa du



**Jon Urien Gomez**  
60 maratoi amaitu ditu bere ibilbidean  
**Abadiño | 1959**

Aurten beste maratoi bi gehitu gura ditu zerrandara; otsailean Sevillakoa eta udazkenean beste bat.

**KORRIKALARIA • JOSEBA DERTEANO**  
**Jon Urien abadiñarrak 60 maratoi amaitu ditu azken 20 bat urteetan. Eta ez dio gezurrik. Bere ibilbideko lasterketa eta entrenamendu guzti-guztiek buruzko oinarriko informazioa (non, noiz, egindako denborak...) mimos gordetako koaderno bilduma batean jasota ditu. Sarritan sentipenak ere gehitzen dizkio informazio teknikoari. Bilduma zabala da, baina ez dago amaituta. Oraindino kapitularen bat edo beste geratzen zaio betetzeko...**

**60 maratoi, alajaina! Ez da egunero betetzen den marka.**

Ba, ez. Berez 61 maratoi amaitu ditut, baina bat ez dut nire estatistiketan sartzen; maratoien munduan murgildu baino sei bat urte lehenago egin nuen bat, 32 bat urte nituela, hain zuzen ere. Parranda baten ostean izan zen. Orduan, euskal txirrindulariek Txitarro Igoeragaz eta osteko jaiagaz amaitzen zuten denboraldia, eta han nengoen neu ere. Jose Luis Gangoitia eta biok berotu egin ginen eta bihamunen Donostiako maratoian parte hartzea erabaki genuen. Munduko kopako proba zen. Amaitu genuen maratoia, eta itxuran ibili ginen, baina, tira, oraindino ez nuen maratoiak egiteko ideia hori buruan. **Noiz egin zenuen, bada, zure lehenengoa zure estatistiken arabera?** 38 urte nituela. Maratoi erdiak egiten nituen orduan. New Yorkeko

maratoia egin gura nuen. Eta izena eman nuen parte hartzeko. Baina errespetua eragiten zidan. Sekula ere maratoi bat egin barik... Beraz, proba moduan, New Yorkera joan aurretik, Madrilgo maratoia egin nuen. Oso ondo irten zitzaidan. Ondoren, New Yorkekoa egin nuen, eta urte berean baita Donostiakoa ere. Aurretik maratoi bat bera ere egin barik egotetik, urtebetean hiru amaitzera pasatu nintzen.

**Zelan joan zen New Yorkeko maratoi hura?**

Ez oso ondo. Fisikoki ondo prestatu nintzen, baina digestio arazoak izan nituen 25 kilometroan. Zurizuri heldu nintzen helmugara. Esnea gosalduta nuen eta ez da komenigarria, korrika zabiltzala esnea galdu egiten delako. Orduan nik ez nekien horrelakorik.

**Itzuli zara mendekua hartzera?**

Bai, beste birritan ere egin dut New Yorkekoa. Azkena, Txaro Barturen emazteagaz.

**Emazteak ere maratoiak egiten ditu?**

Bai, hamar bat egingo zituen. 2010ean, Zurichen nire lehenengo Ironmana egin nuen, eta helmugan, nik atsedean apur bat hartu eta gero, esan zidan: "Maratoiak egiten hasiko naiz". "Zer diozu?", erantzun nion. Korrika ibiltzen zen nigaz, baina ez askorik. Apurka-apurka hasi zen, eta zortzi hilabeteko entrenamenduaren ostean Bartzelonako maratoia amaitu zuen.

**Amaitutako denetatik, zein da orotzapez onenak eragiten dizkizun maratoia?**

Bi aipatuko nituzke. Batetik, New Yorkeko bigarren maratoia. Lehenengoan zelan ibili nintzen kontuan hartuta, bigarrenean gozatu egin nuen. Bestetik, Atenaseko maratoia. Betidanik izan dut buruan maratoi hori egitea. Joateko eta joateko, baina beti suertatzen zen

“**Atenaseko maratoian estadio olinpikora sartzera nindoala oilo-ipurdia jarri zitzaidan; maratoi historikoa da**”

